

TXOSTENA TXOSTENA

12

ZERBITZU

SOZIOKOMUNITARIOAK

ETA FAMILIAK



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ZERBITZU

SOZIOKOMUNITARIOAK

ETA FAMILIAK

EMAKUNDE
EMAKUNDEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1996

IZENBURUA:	"Zerbitzu soziokomunitarioak eta familiak"
EGILEA:	EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea Manuel Iradier kalea, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
KOORDINATZAILEA:	Ana Rincón
DATA:	Azaroa 1996
ALE ZENBAKIA:	1.000
ORRI ZENBAKIA:	216
DESKRIBATZAILEAK:	Gizarte zerbitzuak, haurtzaindegiak, adinekoentzako egoitzak, lanaldi bikoitza, haurren zaintza, metodologi alderdiak, estatistiko datuak
IRUDI DISEINUA:	Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
FOTOKONPOSATZAILEA:	RALI, S.A. Particular de Costa kalea, 8-10. 48010 Bilbao
INPRIMATZAILEA:	Gráficas Santamaria, S. A. Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz
ISBN:	84-87595-47-2
LEGE GORDAILUA:	VI-529-96

AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENA	7
SARRERA	11
1. METODOLOGIA ETA INFORMAZIO ITURRIAK	15
1.1. Agiri honen edukia	17
1.2. Ikerketaren metodologia	17
1.2.1. Diagnostikoaren metodologia eta udal mailako zerbitzu soziokomunitarioen ekintzarako proposamenak	18
1.2.2. Haurrenganako laguntzari buruzko dokumentuaren metodologia Europan	23
2. IRIZPIDEAK	25
2.1. Irizpide orokorrak	27
2.2. Haurrenganako laguntza arloko berariazko irizpideak	28
2.3. Adinekoenganako laguntza arloko berariazko irizpideak	29
3. HAUR ESKOLEI, ESKOLA JANTOKIEI ETA ADINEKOENTZAKO ZERBITZUEI BURUZKO DIAGNOSTIKOA	33
3.1. E.A.E. mailako azterketa eta proposamen orokorrak	35
3.1.1. Haur eskolak	35
3.1.2. Eskola jantokiak	38
3.1.3. Adinekoentzako zerbitzuak	40
3.2. Lurraldekako azterketa	42
3.2.1. Araba	42
● Haur eskolak	42
● Eskola jantokiak	43
● Etxeko laguntza zerbitzua	44
● Adinekoentzako egotetxeak	44
3.2.2. Bizkaia	45
● Haur eskolak	45
● Eskola jantokiak	48
● Etxeko laguntza zerbitzua	50
● Adinekoentzako egotetxeak	50
3.2.3. Gipuzkoa	51
● Haur eskolak	51
● Eskola jantokiak	52
● Etxeko laguntza zerbitzua	53
● Adinekoentzako egotetxeak	54
4. IZENAK ETA DATU ITURRIAK	55
4.1. Izenak	57
4.2. Datu iturriak	58

5. DIAGNOSTIKO TAULAK	59
5.1. Araba	61
5.1.1. Haur eskolak	61
5.1.2. Eskola jantokiak	63
5.1.3. Etxeko laguntza zerbitzua	65
5.1.4. Adinekoentzako egotetxeak	66
5.2. Bizkaia	66
5.2.1. Haur eskolak	66
5.2.2. Eskola jantokiak	74
5.2.3. Etxeko laguntza zerbitzua	81
5.2.4. Adinekoentzako egotetxeak	82
5.3. Gipuzkoa	84
5.3.1. Haur eskolak	84
5.3.2. Eskola jantokiak	88
5.3.3. Etxeko laguntza zerbitzua	91
5.3.4. Adinekoentzako egotetxeak	93
6. PETER MOSS-EN HITZALDIA: “ENPLEGUAREN ETA FAMILI ERANTZUKIZU- NEN BATERAGARRITASUNA”	95
6.1. Sarrera	97
6.2. Testuinguru laborala	97
6.3. Zergatik da beharrezkoa bateragarritasuna edo kontziliazioa?	98
6.4. Bateragarritasuna dela eta Europar Batasunean dagoen interes gero eta na- barmenagoa	99
6.5. Kontseiluaren Gomendioa Haurrarenaganako Arduraz	100
6.6. Zeintzuk dira ekinbide hauen aldeko arrazoi ekonomikoak?	104
6.7. Ondorioak	106



AURKEZPENA

Familiaren egituran eta bizimoduan eta emakume eta gizonok bete izan ditugun ohiko pa-
peretan izan diren aldaketek nabarmenki eragin dute gure gizarte-antolaketan. Bestalde,
ekonomi eremuan gertatzen ari diren aldaketek eta demografiaren garapenak egoera berri bat
erakarri dute, eta egoera horretatik abiatuz proposamenak taxutu behar ditugu generoaren ikus-
pegitik sortzen ari diren behar berriei erantzuteko.


Familiak, edozein famili mota dela ere, oraindik ere pertsonen beharren multzoaren zati ga-
rrantzitsuari erantzuten dio, bai eta oro har gizarte- eta ekonomi sistemak funtzionatzeko dituen
beharren zati garrantzitsuari ere. Familia eta etxeko arduren zati handi bat oraindik emakumeei
dagokie, eta horrek eragozten du emakumeek lan-merkatuan, kultura, gizarte eta politikako bi-
zitzan, osoki parte hartzea. Ondorioz, gizartea osatzen duten lagun guztien gaitasunak ez dira
modurik onenean garatzen ez eta erabiltzen ere.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomi Elkarteko Emakumeentzako Ekintza Positiborako
II. Planean (II. EAEPEPean) famili eta lan-ardurak bateragarri bihurtzea da lehentasuna duen
arloa. Bateratze hori errazten lagundu dezaketen neurriak asko dira eta esparru askotatik bultzatze
daitezke. Hari horretatik, II. EAEPEPeko helburuak puntu hauekin dute lotura: gizarte-sentsi-
bilizazioa, ekoizpen-lanetan eta ugalketan emakume eta gizonen berdintasuna parte hartzeko ardurak
banatzearen aldeko jarrerak lantzea, eta gizarte-komunitateko zerbitzuak garatzea.

Famili eta lan-ardurak bateratzeko eta herritar guztien ongizatea hobetzeko, nahitaezkoak dira
familiaren oinarritzko premiei erantzuten eta haurrak nahiz minusbaliatuak edo gaixo kronikoak
zaintzen laguntzen duten gizarte-komunitateko zerbitzuak garatzea eta egokitzea. Ez dugu esan
nahi familian edo auzokoen artean sortu diren zerbitzu guztiak ordeztu behar direnik, baizik eta
gaur egundo gizarte-antolaketatik eratortzen diren premiei erantzun egokiak eman behar zaiz-
kiela, emakumeak lan arloan eta pertsona gisa garatzea oztopatu gabe.

Emakundek, txosten hau argitaratuz, helburu hori lortzen lagundu nahi du. Txostena ikerketa
zehatz baten laburpena da. Ikerketak gure elkarteko hiru lurralde historikoetako udalerrietan
dauden zerbitzuak aztertzen ditu, eta horiek hedatu edo egokitzeko beharrak zeintzuk diren
zehazten saiatzen da. Haur-eskolan eta eskoletako jangeletan ekiteko proposamenak ere ja-
sotzen ditu ikerketak, bai eta zaharrei, minusbaliatuei edo gaixo kronikoei laguntzeko zerbitzuen
proposamenak ere, zerbitzu horien plangintza egiteko erabil daitezkeenak.

Gizarte-komunitateko zerbitzu horien plangintza egiterakoan, zerbitzuak diseinatzerakoan eta di-
namizatzerakoan, oso garrantzitsua da euskal administrazioko maila guztiak koordinatzea, per-
tsonen eta familien beharrei erantzun eraginkorra eman ahal izateko.



Txaro Arteaga Ansa

EMAKUNDE / Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria



SARRERA

Emakunde, Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboen 1991-1994 Planean jadanik, kezkaturik agertu zen enpleguaren eta familiarekiko erantzukizunen arteko benetako bateragarritasuna lortuko bada beharrezkoak diren zerbitzu soziokomunitario jakin batzuren urritasuna edo gabezia zela eta; agiri hau kezka horren ondorioz sortu da. Aurrena, egoera eza-gutzeko ikerlan bat agindu zitzaion “Datlan, investigación aplicada” deritzon ikertetxeari, “Euskadiko Lanbide-erantzukizunak eta familiarekikoak bateragarriak izateko beharrezkoak diren zerbitzu soziokomunitarioak” deituriko ikerlana alegia.

Kezka berberak bultzaturik, Emakundek “Zerbitzu Soziokomunitarioei buruzko Jardunaldiak” antolatu zituen eta, horrenbestez, 1994ko maiatzaren 19an eta 20an bertoko eta Europako hainbat aditu bildu ziren, Europar Batasuneko eta Euskadiko egoera hobeto eza-gutzeko eta, halaber, Euskal Administrazioako arduradun, zenbait zerbitzutan diharduten teknikari eta jardunaldiotan parte hartzen zuten beste gizarte-eragile batzuekiko eztabaida pizteko.

Agiri honen bidez, alde batetik, eginiko ikerlana argitaratu nahi izan da eta, bestetik, jardunaldien emaitzarik adierazgarrienak, eta hauen artean, bereziki interesgarria eta garrantzitsua delakoan, Peter Moss-ek “Enpleguaren eta familiarekiko erantzukizunen arteko bateragarritasuna” izen-burupean aurkeztu zuen hitzaldia ere sartu da.

Izan ere, familiarekiko arretari dagokionez, gure inguruneko emakumeei gizarte rol mugatu eta zehatza atxiki zaiela egiazta daiteke, hots, emakumea da gizarte politikaren zerbitzuak eta pres-tazioak artikulatzen dituen kate-maila eta familiarteko bakoitzaren beharrezanez arduratzen dena.

Gauzak honela, enpleguaren bati heldu nahi diotenean, emakumeak, gizartearen antolamenduak eratxiki eta eurek ere bereganatu duten jokabidearen arabera, familia eta etxearekiko ardurari eutsi beharrean aurkitzen dira. Eta, etxeko eginkizunei dagokionez belaunaldi berrien artean nabari den ardurakidetza handiagoa aintzat harturik, egoera hau apurka-apurka aldatu doala di-rudien arren, eginkizun hauetaz arduratzen den familiartekoa edozein izanik ere, familiarekiko arretatik eratorritako erantzukizunak norberaren inguruneko lan arloan, kulturgintzan nahiz po-litikagintzan nahi denean esku hartzeko rolei dagozkienekin bateragarriak izango badira, zerbitzu soziokomunitarioez osaturiko azpiegitura behar dela esan daiteke.

Gizartean famili ereduak dibertsifikatzen doazen neurrian, geroz eta beharrezkoagoa da familiei zerbitzu hauen laguntza eskaintzea. Izan ere, familiarteko gutxiago dituen familia, guraso-figura ezberdinak eta familia zabalaren eredutik urrunduz doazen eredu berriak gero eta ugariagoak dira. Hauen guztien ondorioz, familiaren beharrezanaren estaldura zerbitzu soziokomunitarioen sa-rearekiko menpekotasun gero eta nabarmenagoaz ageri zaigu.

Zerbitzu hauek, gainera, oinarrizko eginkizuna betetzen dute haurren eta adinekoen bizitza-ka-litateari dagokionez. Haur eskolen kasuan, hain zuzen, hezkuntza goiztiarrak umeen garapen hobea dakarrelako, eta adinekoentzako zerbitzuei dagokionez, bizitzaren normalkuntza eta gi-zarte harremanen iraupena berez mesedegarriak direlako edonorentzat.

Burututako ikerlanaren orientabide metodologikoari dagokionez, berriz, azterlan hau egite-rakoan, bai zerbitzuei buruzko datuak eta bai tokian tokiko maila sozioekonomikoari buruz-koak ere bildu eta aztertzea oinarri-oinarritzat jo dira, lurralde-maila zabalagoei dagozkien datu orokorrekin sarritan dakarten “iluntasuna” saihesteko. Horretan datza, hain zuzen ere, ikerlan honen berrikuntza eta alderdi interesgarriena, lurralde-maila oso zehatzei dagozkien

datuak ezagutzeak, ekintza positiboaren printzipioa (1) gauzatzeko erabakiak hartzeko bide eman baitezake.

Hortaz, haur eskolen zerbitzuak, eskola jantokienak eta adinekoei laguntzekoak (Etxeko Laguntza eta Egotetxeak) aztertzeko ikerlan honetan erabili den informazioa, oro har, toki edo udal mailakoa da eta, horrenbestez, familien barne-antolaketan duen eragin zuzena eta pertsona guztien garapen eta ongizatearekiko ondorioak balioztatzeak aukera ematen du.

Udal mailako informazioa erabiltzeko beste arrazoi bat ere badago; hots, horrela, eskualde bakoitzari egokitutako jarduketara, hau da, oso ezberdinak izan ohi diren toki bakoitzeko biztanleriaren eta baliabide erabilgarrien arabera jarduketara proposatzea ahalbidetuko duten lurralde eta/edo biztanle-unitate txikiei buruzko diagnostikoez baliatzeko aukera izango dugula.

Hemen aurkezten den agirian azaltzen dira ikerlanaren daturik aipagarrienak laburbilduta eta sailkatuta. Hasieran, tokian tokiko diagnostikoa egiteko erabili diren irizpideak agertzen dira; bigarren zatian, berriz, erabilitako metodologia eta informazio iturriak azaltzen dira eta, ondoren, haur eskolei, eskola jantokiei eta adinekoei laguntzeko zerbitzuei buruzko diagnostikoak eta jarduteko proposamenak aurkezten dira, aztertu diren lurralde-maila ezberdinen datuak sailkaturik agertzen direla.

Ikerlanaren emaitza osoa Emakunderen dokumentazio zentzora bildu da 10.000 biztanle baino gehiago duten E.A.E.ko udaletako bakoitzari eta Lurralde Historikoetako eskualde eta elkartetarik bakoitzari dagozkien banakako dossierretan; horrela, zerbitzu hauek beren lurralde-mailan planifikatu nahi dituzten teknikariek eta/edo arduradun politikoei kontsultatzeko oinarritzko euskarri baliagarria gerta dadin. Material hau oso zabala denez, ikerlan osoaren edukina laburbiltzen duen txosten hau aurkezten da.

(1) Egoera desberdinean dauden kolektiboenganako ekintza positiboa planteatu ahal izateko, maila ezberdin hauek zehaztu egin behar dira nolabait. Hala familientzako zerbitzu soziokomunitarioen gabezia emakumezkoen beharrianak aintzat harturik aztertzean, nola alde edo auzune jakin baten status sozioekonomikoa zehaztean, zenbait zerbitzu martxan jartzeko kostuen aurrikuspena erraztu egiten da geroko emaitza-berdintasunari begira.

1

METODOLOGIA ETA INFORMAZIO ITURRIAK

Atal honetan bi alderdi ezberdin azalduko dira. Alde batetik, agiri honen edukia azaltzen da eta, bestetik, ikerlanean erabilitako metodologia zehazten da.

AGIRI HONEN EDUKIA

1.1

Agiri hau egiteko, bi datu-iturri hartu dira abiapuntutzat, burututako ikerlana eta Peter Moss-en hitzaldia alegia.

Ikerlanaren datuak oinarritzat harturik, informazioaren aurkezpen labur eta sailkatua egin da, Euskadiko Autonomi Elkarte (E.A.E.) osoko zerbitzu soziokomunitarioen egoerari buruzko ikuspegi sintetikoa ahalbidetzeko, baina, nolanahi ere, tokian tokiko datuak baztertu gabe, lehen ere adierazi dugun bezala, azterlanaren funtsezko ezaugarria baita.

Horrexegatik, lurralde-mailaka eta aztertutako zerbitzu-motaka sailkatutako taulak diseinatu eta eratu dira.

Leku gehiegi ez betetzearen, azterlanean aztertutako adierazleetako batzuk baino ez dira erabili. Agiri honetarako prestatu diren diagnostiko-tauletan honako datuak agertzen dira:

- Zerbitzua doakion biztanleria.
- Plaza-kopurua edo laguntza emandako kasuena.
- Estaldura tasa.
- Status sozioekonomikoa.
- Sortu beharreko plazei buruzko proposamena.

Tauletan aurkeztutako diagnostiko-datuak antolatzerakoan, berriz, honako irizpideak erabili dira:

- Lurralde Historikoa.
- Baliabide-mota (haur eskolak, eskola jantokiak, etxeko laguntza zerbitzua eta egotetxeak).
- Biztanle-kopurua: (20.000 biztanletik gorako udalak, 10.000-20.000 biztanledunak, elkar-teak/eskualdeak eta mankomunitateak).

IKERKETAREN METODOLOGIA

1.2

Metodologiari dagokionez, metodologia kuantitatiboa erabili da gehien bat, ustiatutako datu gehienetarako bigarren mailako iturriak erabili direla. Dena den, metodologia kualitatiboa ere erabili da datu zehatz batzuk jasotzeko, hots, gurasoek haur eskolen eta eskola jantokien ezaguariez uste dutena ezagutzeko eta, halaber, hiru Foru Aldundietako Gizarte Ongizate Sailetak

arduradunek beren ardurapean dauden eta azterlanerako interesgarriak diren zerbitzuei zer deritzoten jakiteko.

Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) lankidetzaz trinko eta kualifikatuari esker garatu ahal izan den eta hainbat ikerketa-kabineteren (2) partaidetzaz burutu den ikerlan honetara bildutako lan-mota ezberdinak aintzat harturik, kapitulukako azalpen metodologikoa egiten da, irakurketa ordenatuaren mesedetan.

**DIAGNOSTIKOAREN
METODOLOGIA ETA
UDAL MAILAKO ZERBITZU
SOZIOKOMUNITARIOEN
EKINTZARAKO
PROPOSAMENAK**

1.2.1

Zerbitzu soziokomunitarioei dagokienez, udal mailan antzematen diren beharriaz zuzen buruzko diagnostikoa egiteko, elkarloturiko hainbat lan egin behar izan dira.

- E.A.E.ko 20.000 biztanletik gorako udal guztiak zonakatu eta ikerlan honetarako garrantzizkoak izanik zonakatze horren arabera aztertuko ziren adierazle demografikoak definitu behar izan ziren.
- Aztergai ziren arlo ezberdinetako baliabideei eta emandako laguntzari buruzko datuak lortzerakoan, bigarren mailako iturrietatik eskura zitezkeenak zehaztu ziren. Hortaz, desberdintasun nabarmenak planteatu ziren hasiera-haieratik, zeren eta informazio erabilgarria ez baitzen homoginoa arlo guztietan.
- EUSTATEk, bestalde, 1991eko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldatiko datu espezifiko hainbat ustiapen egin zituen, beharrezko desagregazio-mailara heldu eta Familien Errolda Etxebizitza Erroldarekin erlazionatzeko.
- Udaletako alde ezberdinen status sozioekonomikoa zehaztu zen, bi aldagai (familiaburuaren ezaugarri bat, ikasketa-maila, eta etxebizitzaren ezaugarri bat, m²-tan duen luze-zabalera) (3) erlazionatzetik ateratako adierazle bat erabiliz.
- Gizarte Zerbitzuen Estatistikatik eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailatik ateratako datuez baliatuz, aztergai ditugun hiru zerbitzuen (haur eskolak, eskola jantokiak eta adinekoei laguntzekoak) baliabideei eta haiek emandako laguntzei buruzko datuak aztertu ziren. Adinekoen kasuan, gainera, hiru Foru Aldundietatik jasotako udal mailako etxeko laguntzari buruzko datuak ere erabili dira.

(2) Hiru ikertegiren laguntza izan dugu: Emaiker, Gabinet D'estudis Socials eta Datlan, bakoitzak bere zeregina izan duela:

- Emaikerrek Emandako Laguntzari eta dauden Baliabideei buruzko datuak bildu eta udal, eskualde, lurralde historiko eta autonomi elkarte mailako tauletan eta mapetan azaldu.
- Bartzelonako Gabinet D'estudis Socials delakoak, Europako Haurrenganako Laguntzari buruzko azterlana.
- Datlan delakoak, berriz, udal mailako eta Elkarte mailako Beharriaz zuzen Diagnostikoa, gurasoek somaturiko eskariaren Azterketa Kualitatiboa eta Jarduteko Proposamenak egiteaz gainera, ikerlan osoaren diseinua eta garapena koordinatzeaz arduratu da.

(3) Itxuraz erraza den bi aldagairen arteko gurutze hau egiteko, EUSTATEk E.A.E.ko familien fitxategiko 600.000 erregistro erlazionatu behar izan du etxebizitzaren fitxategiko beste horrenbesterekin.

- Azterketa kualitatibo bat ere egin zen gurasoen artean, haur eskolen eta eskola jantokien zerbitzuei buruzko iritzia eta haiekiko jarrerak ezagutzeko, gerora, jarduteko proposamenak zehazteko baliogarriak izan direnak. Horrez gain, hiru Foru Aldundietako Gizarte Ongizate Sailetako arduradunekin ere elkarrizketa sakonak egin dira, euren ardurapeko zerbitzu sozio-komunitarioetan jarduteko proposamenei zer irizten dioten jakiteko.
- Proposamenak zehazteko irizpideak finkatzeari ekin zitzaion. Irizpide hauek, ikerlan honen sarreran eta udal bakoitzari dagokion dosierraren sarreran sartu dira.
- Azkenik, adierazle demografikoei, baliabideei eta emandako laguntzari buruzko datuak konparatiboki azaltzen dituzten taulak eratu ziren eta, datuok oinarritzat harturik, diagnostikoak eta jarduteko proposamenak tajutu ziren.

A) ZONAKATZEA

20.000 biztanletik gorako udalerrietako auzune edo alde ezberdinen arabera azterketari ekin ahal izateko, oinarritzko informazioa eta udaleko teknikarien iritzia jaso eta delako udalerria zonakatu egin behar izan da.

Zenbait udalerrian bazegoen barruti eta sekziokako banaketa planoetan jarria, hiriburu handietan esate baterako. Udalerrri gehienetan, ordea, batzutan kaleak, beste batzutan barruti eta sekzioak, baina oso gutxitan biak batera azaltzen dituzten planoak baino ez daude.

Aldeak eta auzuneak zehazteko, beraz, udalerrri bakoitzeko Gizarte Ongizate Saileko teknikariengana eta Estatistikako nahiz Hirigintza Planifikazioko Sailekoengana ere jo behar izan da, aterako zen zonakatzea herritar gehienentzat “ezaguna” gertatuko zen zonakatze bat egitea ahalbidetuko zuten irizpide sozial, hirigintzako, historiko... ezberdinen erakusgarri izan zedin.

Datlanek aurretiaz adierazle-azterketak eginak zitueneko Bilbo Haundiko zenbait udalerrietako zonakatzea zeukan. Getxokoa, Leioakoa, Santurtzikoa, Sestaokoa, Barakaldokoa, Galdakaokoa eta Basaurikoa, hain zuzen. Bilboko zonakatzea ere zehatz-mehatza zen; Vitoria-Gasteizen eta Donostian, berriz, planoan azaltzen zen zonakatze zehatzik ez zegoelako, edo, Vitoria-Gasteizen kasuan bezala, bi modalitate, hau da Udalak erabiltzen duena eta Foru Aldundiarena zeudela, zonakatze kontrajarriak aurkitzen zirelako, zonakatze zehatzagoa lortzeko harremanak ezarri ziren.

Kontrastaketa egiteko, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Soziologi Azterlanetarako Kabineteak eginiko udalarteko zonakatzeari buruzko azterlan bat erabili da, baina, azterlan horren helburua eta ikerlan honena aski ezberdinak direla kontutan harturik, udalerriekin zuzenean zehazturiko informazioari garrantzi handiagoa aitortu zaio.

Informazio zehatzagoa izan nahi bada, Emakunderen “E.A.E.ko lanbide-erantzukizunak eta familiarekikoak bateragarriak izateko beharrezkoak diren zerbitzu soziokomunitarioak” deritzon azterlanaren XXIV. liburuko “E.A.E.ko Udalerrri eta Eskualdeen zonakatzea” agiria kontsulta daiteke.

B) DATU ITURRIAK

Bigarren mailako bi iturri erabili dira:

- Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Gizarte Zerbitzuen 1992ko Estatistika.
- Hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundi bakoitzeko Gizarte Ongizate Saila.

C) ADIERAZLE DEMOGRAFIKOAK

Honako adierazleak erabili dira:

- 0 eta 3 urte bitarteko biztanleria, 15 eta 49 urte bitarteko ama duena.
- 0 eta 3 urte bitarteko biztanleria, 15 eta 49 urte bitarteko ama aktiboa duena.
- 0 eta 3 urte bitarteko biztanleria, 15 eta 49 urte bitarteko ama landuna duena.
- 0 eta 3 urte bitarteko biztanleria, 15 eta 49 urte bitarteko ama langabetua duena.
- 0 eta 3 urte bitarteko biztanleria, guraso bakarra den 15 eta 49 urte bitarteko ama duena.
- 3 eta 18 urte bitarteko biztanleria, 15 eta 49 urte bitarteko ama duena.
- 3 eta 18 urte bitarteko biztanleria, 15 eta 49 urte bitarteko ama aktiboa duena.
- 3 eta 18 urte bitarteko biztanleria, 15 eta 49 urte bitarteko ama landuna duena.
- 3 eta 18 urte bitarteko biztanleria, 15 eta 49 urte bitarteko ama langabetua duena.
- 3 eta 18 urte bitarteko biztanleria, guraso bakarra den 15 eta 49 urte bitarteko ama duena.
- 65 urte edo gehiago dituen biztanleria.
- Bakarrik bizi den 65 urte edo gehiago dituen biztanleria.
- Familiaburuak 55 urte baino gutxiago dituen familiak, 65 urte edo gehiago dituen bizikide bat edo gehiago dutenak
- Familiaburuak 55 urte baino gutxiago dituen familiak, 80 urte edo gehiago dituen bizikide bat edo gehiago dutenak.

D) STATUS SOZIOEKONOMIKOA

Azkenik, auzune edo alde bakoitzeko zehazteko, bi aldagai erlazionatzen dituen adierazle bat erabili da: etxebizitzaren tamainua familiaburuaren ikasketa-mailaren arabera.


Aurrez, hainbat proba egin dira adierazle konplexuagoa bat lortzeko, hots, adina eta lan egoera, familiaburuaren eta familiakoen adina eta bestelako aldagaiak biltzen dituen adierazlea. Alabaina, egin diren probetan aldagai batzuk ez dira aldean bereizketa eskaintzeko gauza izan eta, horrenbestez, aipatu den adierazlea erabiltzea erabaki da, hiriguneetan batez ere bereizgarri eraginkorra dela erakutsi baitu.

Ekonomi urritasunarekin zerikusi zuzenik ez duten etxebizitza txikiak nabarmentzen diren auzune edo aldeetan, industrializazio aroetako hiriguneen kasuan esate baterako, adierazle hau ez da horren adierazgarria. Baserri-guneetan ere, non hiriguneetan baino etxebizitza dexente handiagoak izan ohi diren, adierazle honen baliagarritasuna ez da berdina. Horregatik ez da erabiltzen etxebizitzaren tamainuak eta ikasketa-mailak ekonomi urritasunarekin zerikusi txikia duten aldeetan.

Ondoren azaltzen den grafikoan ikus daitekeen moduan, aipaturiko bi aldagaia gurutzatuz aldagai berria sortu da, statusa honela definitzen duena:

STATUSA	METRO KARRATUAK	FAMILIABURUAREN IKASKETA-MAILA
Behekoa	< 67 m ² < 105 m ²	Lehen mailako ikasketarik gabekoa Analfabetoa
Erdi behekoa	< 67 m ² > 67 < 76,9 m ² > 77 < 104,9 m ² > 105 m ²	Lanbide-ikasketak Bigarren mailako ikasketak Ikasketarik gabekoa Lehen mailako ikasketak Lanbide ikasketak Ikasketarik gabekoa Ikasketarik gabekoa Analfabetoa
Erdikoa	< 67 m ² > 67 < 76,9 m ² > 77 < 104,9 m ² > 105 m ²	Erdi-goimailako ikasketak Goimailako ikasketak Bigarren mailako ikasketak Erdi-goimailako ikasketak Goimailako ikasketak Lehen mailako ikasketak Bigarren mailako ikasketak Erdi-goimailako ikasketak Goimailako ikasketak Lehen mailako ikasketak Lanbide ikasketak
Goikoa	> 77 < 104,9 m ² > 105 m ²	Goimailako ikasketak Bigarren mailako ikasketak Erdi-goimailako ikasketak Goimailako ikasketak

1. GRAFIKOA Status-maila etxebizitzak dituen m²en eta ikasketa-mailaren arabera



Iturria: DATLAN, norberak egina EUSTATen 1991eko Biztanle eta Etxebizitza Erroldatik.

Muturreko pobrezia edo nolabaitekoa jasaten duen biztanleriari buruzko datuak oinarritzat harturik, statusa zehazteko, Autonomi Elkarteke biztanleriari buruzko hipotesi bat ezarri da abiapuntu gisa; hona hemen:

beherengo % 5	= Behekoa
hurongo % 25	= Erdi-behekoa
bitarteko % 60	= Erdikoa
gorengo % 10	= Goikoa

Erabili den adierazlea hipotesi honetatik nahikoa hurbil dago, zehatz-mehatz definitzen ez duen arren. Beheko statusaren kasuan, adibidez, E.A.E.ko biztanleriaren % 2 gainditzen ez duen portzentaia ematen du adierazle honek; Goiko statusari dagokionez, berriz, biztanle guztien % 7tik beherako portzentaia adierazten du. Guztiz bat ez datozen arren, adierazle honek, hiriguneetan behinik behin, bereizketa benetan baliagarria egiteko bide ematen du.

E) AZTERKETA KUALITATIBOA

Elkarrizketa sakon erdiegituratuen teknika erabili da, gido nagusi bat mugatuz, elkarrizketa egin zaionaren pentsamoldeak eta aztergaiari buruzko iritziak sartzeko bide eman dela.

Lagin estrategikoa prestatzeko, sei eratako familiak definitu dira; hauetarik lau elkarrizketa emakumezkoei egin zaizkie eta bi gizonezkoei. Tipologiak zehazteko, berriz, honako aldagaiak hartu dira kontutan: bizileku-mota, bikotea osatzen dutenen adina, guraso biko edo bakarreko etxea, seme-alaben kopurua, maila sozioekonomikoa, etxetik kanpo ezkontide batek edo biek lan egi-tea eta famili laguntzarik edo familiaz kanpikorik egotea.

Honako tipologiak atera dira:

- Elkarrizketatua gizonezkoa izan denean:

- Baserrian-kostaldean bizi den familia, aita 30-35 urtekoa; bi guraso; bi seme-alaba; erdi-mailako statusa; ezkontide biak aktiboak; famili laguntzak bai baina familiaz kanpikorik ez duena.
- 20.000 biztanle baino gehiagoko industri hiriguneko familia; 30 urtetik beherako aita; bi guraso; seme edo alaba bakarra; beheko statusa; ezkontide biak aktiboak; famili laguntzarik eta familiaz kanpikorik gabekoa.

- Elkarrizketatua emakumezkoa izan denean:

- 20.000 biztanle baino gehiago dituen hirigunean bizi den familia, amaren adina 30-35 urte; bi guraso; bi seme-alaba; biak aktiboak; erdiko sarrera-maila; famili laguntzak eta familiaz kanpokoak dituen.
- Ingurune metropolitarran bizi den familia, amaren adina 30-35 urte; bi guraso; lau seme-alaba; ama ez-aktiboa; beheko sarrera-maila; famili laguntzarik ez baina familiaz kanpokoak badituen.
- Ingurune metropolitarrako auzune periferikoan kokaturiko familia, amaren adina 30-35 urte; guraso bakarreko etxea; bi seme-alaba; ama aktiboa; beheko sarrera-maila; famili laguntzarik eta familiaz kanpikorik gabekoa.
- Barnealdeko baserri-gunean kokaturiko familia, 30 urtetik beherako ama; bi guraso; seme edo alaba bakarra; ama aktiboa; erdiko sarrera-maila; famili laguntza bai baina familiaz kanpikorik ez duena.

F) TERMINOLOGIARI BURUZKO OHAR BATZUK

Txosten osoan zehar “haur eskola” delako izena erabili da eta ez “haurtzaindegia”, izan ere, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legean (LOGSE) ere horrelaxe deitzen baita zerbitzu horiei. Honek ez du inola ere esan nahi dauden halako ikastetxe guztiek LOGSEk haur eskolentzat ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenik.

0 eta 3 urte bitarteko eta 3 eta 18 urte bitarteko biztanleria osoa aztertu beharrean, 15 eta 49 urte bitarteko ama duena baino ez da aztertu, zerbitzu soziokomunitarioen eskatzaile nagusiak berauek izango direlakoan.

Adinei dagokienez, 0 eta 3 urte bitarteko adin-tartea LOGSEk ezarritako bereizketa aintzat harturik egin da, nahiz eta, batzutan, 0 eta 2 urte bitarteko haurrak soilik kontutan hartu beharko liratekeen, zeren ikastetxe askotan 2 urteko umeak ere onartzen baitituzte; eta beste batzutan, 0 eta 4 urte bitarteko haurrak aztertu beharko lirateke, zenbait familiak seme-alabak haur eskolan uzten baitituzte 3 urte bete ondoren ere.

Demografiari, baliabideei eta emandako laguntzari buruzko datuei dagokienez, baliagarriak erabili dira. Datu demografikoen kasuan, 1991eko Biztanle eta Etxebizitza Errolda erabili da, eta baliabideei eta emandako laguntzari buruzko datuen kasuan, berriz, 1992ko Gizarte Zerbitzuen Estatistika. Hortaz, ez da ahaztu behar diagnostikoak egungoarekin guztiz bat ez datorren egotari buruzko balorazioak egiten dituela, traba hori, dena den, estatistika-azterketetan oinarritutako ikerlan ororena da. Horrez gain, biztanleriari buruzko datuen eta baliabideei eta emandako laguntzari buruzkoen artean ere urtebeteko aldea dagoela esan beharra dago.

Traba eta muga hauek izan arren, diagnostikoa egin da, iragan den denbora kontutan izanik, datu demografikoak ezer gutxi aldatuko ziren eta. Beste alde batetik, baliabideei eta emandako laguntzari buruzko datuetan ere ez dirudi aldaketa nabarmenik izan denik. Gainontzeko datuei dagokienez, litezkeen aldaketak gutxietsi gabe, hala egin nahi duten teknikariek erraz egunera dezaketen informazioz hornituriko udal dossierra eskaintzen da.

HAURRENGANAKO LAGUNTZARI BURUZKO DOKUMENTUAREN METODOLOGIA EUROPAN

1.2.2

Europa mailan dagoen dokumentazioa bildu da, Europako Batzordeko haurrenganako laguntza sarearen agiriak berariaz kontutan hartu direla.

Honako agiriak erabili dira:

- *Biztanleria Aktiboari buruzko Azterketak*; Eurostat. 1983, 1986 eta 1989.
- *Emakumeen Koadernoak Europan*, 36 zk.; Brussela, Europar Komunitateen Batzordea. 1992.
- *Enplegua, aukera berdintasuna eta haurrenganako laguntza. 92 urteko txostena*; Brussela, Haurrenganako laguntza sarea. 1993.
- *Enplegua Europan*; Brussela, Europar Komunitateen Batzordea. 1992.
- *Enquete. Aspirations*; Paris, CREOC, 1992.

- *Estatistika demografikoak*; Eurostat. 1991.
- *Haurren zaintzari buruzko gomendioak*; Brussela, Europar Komunitateen Batzordea. 1992ko martxoak 31.
- *Haurrenganako laguntza Europar Komunitateetan, 1985-1990*; Europar Komunitateen Batzordea. Peter Moss-eko koordinaturiko txostena, 31 zk.; 1990eko abuztukoak.
- *La protection social dans les états membres de la communauté*; Brussela, MISSOC, Comisión des Communautés Europeennes; 1992ko uztailak 1.
- McRae, S.: *Amatasunaren Eskubideak Britainia Haundian*; Londres, Lan Ministerioko Azterketa Politikoen Kabinetea; 1991.
- *Support for Children*; Department of Social Policy and Social Work and the Social Policy Research Unit. Londres, University of York; 1993.

Agiri honetan, dena den, ez da Europa mailako haurrenganako laguntzari buruzko informaziorik sartu, jatorrizko agiriak berak aztertu diren herrialde ezberdinetako egoera laburbiltzen baitu. Interasaturik daudenek Emakunderen Dokumentazio Zentrora jo eta bertan kontsulta dezakete.

2

IRIZPIDEAK

Jarduteko proposamenak definitzen hasteko, lehendabizi oinarrizko irizpideak ezarri ziren. Horretarako, gaur egun bai Europar Batasunean eta bai gure Autonomi Elkartearen ere nolako gizarte politikak dauden, gizartearen nagusitu diren baloreak, izandako demografi aldaketak, familiaren egitura, eta abarrak kontutan harturik, nolabaiteko hausnarketa egin behar izan da.

Hausnarketa honen zutabeak, berriz, eginiko ikerketa eta, zuzenean edo argitaratutako nahiz argitaragabeko agirien bidez, kontsultatu zaien gizarte eragileengandik jasotako informazioa izan dira.

Horrela, arlo ezberdinetarako proposamenak errazago ulertzeko lagungarria gerta daitekeen erreferentziatzeko esparru bat ezarri nahi izan da.

Nolanahi ere, irizpideon zehaztapenak gai honekin loturiko gizarte eragile guztien arteko eztabaida dakar. Hortaz, emakume eta gizonentzako aukera berdintasunaren eta familien ongizate orokorraren sustapenari dagokionez Emakundek benetan funtsezkotzat jotzen duen problematika hau plazaratu eta beroni buruzko eztabaida suspertzeko asmoz planteatzen da hurbilketa hau.

IRIZPIDE OROKORRAK

2.1

Familia guztiei, oro har, eta haurrenganako laguntzari eta gaixo zaharrei eta/edo elbarriei, bereziki, dagozkien irizpideak zehazten dira aurrenik. Hona hemen:

- Pertsona ororen eskubide eta beharrianak errespetatu: emakumezko eta gizonezkoenak, haurrenak eta gaixo zahar eta/edo elbarrienak.
- Haurren eta gaixo zahar nahiz elbarrien beharrianetarako laguntza sustatu, osasun arloan, laguntzazko alderdietan nahiz afektibitateari eta harremanei dagozkien eremuetan; aldi berean, emakumeentzako benetako aukera berdintasunaren alde ahaleginduz.
- Emakumezkoek egiten dakitenaren balorazioa bultzatu, horretarako estrategiak bilatuz, adibidez: haurrenganako edo adinekoenganako laguntzan diharduten pertsonen prestakuntza-maila goratuz eta lan baldintzak hobetuz, edo emakumezkoek tradizioz egin ohi dituzten lanak profesionalizatuz.
- Produkzio-lana eta erreprodukzio-lana arteko parekidetzen ahalegindu, familiaz arduratzeko zereginetan bai emakumezkoak eta bai gizonezkoak berdintsu parte hartzera bultzatuz.
- Zerbitzuen akatsengatik nahiz zerbitzurik ez izateagatik gabeziak dituzten arloen estalduraren erantzule egin Administrazio Publikoa.
- Administrazio publikoaren bultzada beharrezkotzat jo zerbitzuen planifikaziorako eta prestazioaren kalitatea bermatzeko: ordutegien malgutasuna, laguntza-motak, erabiltzailearentzako argibideak, etab., zerbitzu guztietan, publiko zein pribatuetan, kudeaketarako eta elkartasuna sustatzeko orduan ere sektore pribatua kontutan izanik.
- Udal mailako zerbitzuen kudeaketa deserditatu, udalen ezaugarri berezietara egokitzen ahaleginduz.

- Familiak zerbitzuen diseinuan eta kudeaketan parte hartzera bultzatu, elkartasunezko oinarrizko sarearen ekintza estimulatzu eta, partehartze hori lortzeko beharrezkoa denean, haien prestakuntza sustatu.
- Zerbitzu guztien malgutasuna eta aniztasuna bultzatu.
- Zeregin ezberdinen arteko bateragarritasuna errazteko, ordutegien malgutasuna bultzatu hainbat arlotan: osasun zerbitzuen edo bestelakoen laguntza-orduak malgutu, eskola-orduekin eta lanekoekin bateragarriak izan daitezen, eta enpresetako ordutegiak eta lan baldintzak, merkataritzakoak barne, malgutu zereginen armonizazioa ahalbidetuz.
- Ekimen pribatuari zerbitzu soziokomunitarioak abiarazten lagundu.

HAURRENGANAKO LAGUNTZA ARLOKO BERARIAZKO IRIZPIDEAK

2.2

Jarraian azaltzen diren irizpideak haur hezkuntzari eta eskola jantokiei buruzko alderdiei dagozkie batik bat. Horregatik ez dira hainbat alderdi jorratzen, garrantzizkoak izan arren, kasu honetan hegalekoak gertatzen direlako. Hona hemen irizpideak:

- Gutxienezko estaldura-maila izatearen alde agertu eta zentro guztien kalitate egokia bultzatu Administrazio Publikotik, premiazko kasuen finantzaketa bere gain hartuz.
- Finantzaketa-modalitateak bereiztu: plaza osoa edo plaza partziala, zentroa finantzatu, etab.; zentzu honetan, gomendio bat egiten zaio sektore publikoari, hau da, familien maila sozioekonomikoak kontutan hartzea; diruz lagundutako plazen eskaintza bermatu dauden baliabide guztietan, eskaini beharreko gutxienezko portzentaia ezarri; irabazasmorik gabeko sektore pribatuaren lankidetzat suspertu; LOGSEek eskatzen duen hezkuntzazko izaera, langileen prestakuntza eta zerbitzuaren kalitate orokorra ziurtatzen dituzten kooperatibak edo autoenplegu enpresak eta, oro har, gizarte enpresak bultzatu dirulaguntzen bitartez.
- Profesionalen prestakuntza ziurtatu, hala balegokio, haur hezkuntzaz arduratzen direnak (4) erreziklatuz, famili egoera berriek hurrei ekarri dizkien beharrian berriei aurre egiteko prestakuntzaren bidez. Pertsona hauek, halaber, prestakuntza berdina izan dezatela ziurtatu, hau da, haurren beharrian guztiei aurre egiteko gai izan daitezela, “hezkuntzazko”tzat jotzen denaren eta “laguntzazko”tzat edo antzerakotzat jotzen denaren arteko bereizketa ekidinez.
- Epe laburrera, zentro guztiek, hala kantitatean, nola kalitatean, gutxienezko estaldura bat (arreta, prestazioak, ordutegiak, egutegia, elikadura) izatera bideratzeko ahaleginak egin.
- Ordutegi zabal eta malguak ziurtatu, bai 0 eta 3 urte bitartekoentzat eta bai 12 edo 14 urte bitartekoentzat ere, lehen mailako ikasketak amaitu arte, 12 urte, behinik behin, eta inguruko bizitza-baldintzen arabera (tamainua, baserria/hiria, ekipamenduak ...), eskolatik kanpoko estaldura eskainiz (eskola-laguntza, jarduera ludikoak eta hezkuntzazkoak, etab.).
- Udal mailako deserdirapena sustatu dagokion Siletik, kasu honetan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Siletik hain zuzen.

(4) 0 eta 3 urte bitarteko haurrekin diharduten profesionalak.

- Erantzukizun-multzo hau hobeto baliatu eta koordinatzeko, gomendagarria da zerbitzu hauen koordinatzailea Sail bat izatea, kasu honetan, LOGSEren arabera, Autonomi Elkarteko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila izan liteke, zerbitzuon kudeaketari begira hainbat Era-kunde Publikorekin eta ekimen pribaturekin elkarlanean arituz.

ADINEKOENGANAKO LAGUNTZA ARLOKO BERARIAZKO IRIZPIDEAK

2.3

Berariazko irizpide hauek, pertsona guztientzat azaldutako alderdi orokorreko buruzko irizpide orokorrak zehazteaz gain, haien osagarri dira.

Irizpideok zenbait arlotan sailkatu dira, hots: burujabetasuna, berezko ingurunean egotea, bizi-lekuaren baldintzak, gorputz eta buru-lana izatea, gizartean partehartzea eta egoitzazko laguntza.

BURUJABETASUNA

- Prebentziozko neurriak sustatu, burujabetasuna bultzatzeko. Zentzu honetan hainbat ahalbide planteatu daitezke: lanetik jubilaziora iragateko erraztasunak eman eta jubilatzearen dauden kolektiboak prestatzea; ezgaitasunen bat duten adinekoen burujabetasuna erraztea laguntza teknikoaren eta teknologia berrien erabiltzera eramanez; adinekoen autoestimazioa bultzatu eta zahartzaroetik ikuspegi soziala hobetzea; interesaturik dauden 65 urtetik gorakoei behar bezalako eta egiazko informazioa eskaintzea, laguntzazko sistema publikoaren baliabideei heltzeko aukeren artean hautatzeko erraztasunak emateko eta, halaber, 65 urtetik gorako pertsona guztiei gutxienezko ekonomi ongizatea ziurtatzeko moduko baliabideei heltzeko erraztasunak ematea.
- Pertsona behartsuenei, eta hauen artean, behar duten laguntzazko baliabidea edozein izanik ere, laguntzaren premiarik larriena dutenei zuzendutako gastuari lehentasuna eman, pertsona hauen txirotzea ekidinez.

BEREZKO INGURUNEAN EGOTEA

- Adinekoak beren ingurunean ahalik eta ondoen egoteko erraztasunak eman. Horretarako, erakundetze-prozesuez baliatu beharrik ez izatea ekar dezaketen zerbitzu, baliabide edo prestazioetarantz bideratu behar da laguntzazko eskuhartzea; 65 urtetik gorako familiar-tekoak euren etxean mantentzen laguntzen duten familiei laguntza eman; famili desagituraketak eta familiararen laguntzarik edo antolamendurik eza ekidin; adinekoen bazterketa ekidin; adineko gehienei beren ohiko ingurunean eguneroko ekintzak burutzea eragozten dieten oztopo arkitektonikoak eta bestelakoak eta, batez ere, beren-beregiko baliabideetakoak (jubilatuen etxeak, etab.) arian-arian kendu.
- Aldi baterako laguntza edo ordezkoko zaintza emateko zerbitzuen bidez, ezgaitasuna duten adinekoen arduratzen diren familiarakoak askatu edo “atseden” hartzeko aukera indartu, fa-

milia horiek beren adinekoei laguntza ematen eta euren ingurunean mantentzen jarraitu ahal izateko, eta ezgaitasun larriaren kariaz, batez ere, beren bizilekuetan egoteko gauza ez diren adinekoei egoitzazko laguntza izateko azken baliabide bat eskaini.

- Bizilekuan egon nahi duten adineko guztiei bertan egoten laguntzeko baliabide orokorren sareari eutsiko dion Euskadiko Autonomi Elkarte osorako etxeko laguntza sistema homogenoa finkatu, osasun laguntzako zerbitzuek emaniko benetako Etxeko Osasun Laguntzaz hornitua eta pentsio eta errenta politika egoki batez osatua, noski.

BIZILEKUAREN KALITATEA

- Adinekoen ohiko bizilekuak beharreko sarbideak eta bizitzeko baldintza egokiak izan ditzala lortu, bai eta gutxienezko erosotasuna izan dezala ere. Horretarako, etxebizitzaren egokitzapenari ekin beharko zaio, gutxienezko bizitza-kalitatea erdiesteko akats nabarmenak daudenean.
- Ezgaitasunik ez dutenei lagundu behar zaienean, gizartean integraturiko ostatu-ereduak ahalik eta gehien indartu, erakudetu aurretiko bizimodua ahal den neurrian birsortuz. Zentzu honetan, beren kabuz baliatzeko gauza diren adinekoentzako ostatu-sarea eratu eta finkatu beharra dago.

JARDUERARI EUSTEA

- Adinekoen jarduera-mailari eusteko lagungarriak gerta daitezkeen ekintzak bultzatu. Ildo honetatik, astialdian sormenezko jarduerak izatera bultzatu beharko lirateke adinekoak, horrela, norbere errealizazioa ahalbidetu, ongizatea eta osoko osasuna faboratu eta gizarte dinamikan parte hartzea errazteko.
- Adinekoen hezkuntza eta kultura-maila zabaldu, gerontologi etxeetan eskaintzen diren jarduerak egokituz.
- Adinekoen ezagutza-gaitasuna suspertuz, jokabide pasiboen agerpena ahalik eta gehien geroztatzea ahalbidetzeko adimen-lanari eutsi edo ekin diezaiotela lortu.
- Eskaintza soziokultural bereizien garapena bultzatu, kultura nahiz ekonomia-maila ezberdinak, aurretiko gurariak, gaitasun fisikoak eta norberaren mugak, bizimodu eta jokaerak, harremanak edo zahartzaroarekiko gizarte jarrerak kontutan harturik, dauden adineko ezberdinen askotariko izakerei egokituriko eskuhartze-eredu ezberdinekin.

GIZARTEAN PARTE HARTZEA

- Gizartearen elkartasuna eta herritarren partehartzea sustatu, adinekoenganako ardurakidetzareagotzeko. Belaunaldien arteko elkartruke eta elkartasunezko prozesuak ezarri. Horretarako, adinekoek gizartean parte hartzera bultzatu beharko dira, beraientzako eskaintza soziokulturalaren prestaketan, batez ere; era berean, adinekoen elkartegintza ere bultzatu beharko da, gizartearen kontzientziazioa sustatu beharko da adinekoen beharrian eta arazoez jabetaraziz, horrela, adinekoek gizartean integratzeko ahalbide sendoak izateko, gizarte osoaren elkartasuna suspertuz eta adineko behartsuenei zuzendutako laguntzan parte hartzera bultzatuz.

- Animazio soziokulturala areagotuz eta adinekoek dagozkien gizarte politikako neurrien planifikazioan eta jarraipenean parte har dezatela ziurtatuko duten ordezkaritza eta aholkularitza organoak eratuz, adinekoen partehartze-gaitasuna indartu.

EGOITZAZKO LAGUNTZA

- Ezgaitasun larriagatik, batez ere, beren bizilekuetan egoteko gauza ez diren adinekoei egoitzazko laguntza eskaini. Horretarako, behar bezainbat egoitza-plaza iraunkor eratu beharko dira.

3

HAUR ESKOLEI, ESKOLA JANTOKIEI ETA ADINEKOENTZAKO ZERBITZUEI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Diagnostiko honen hasieran, aztertuak izan diren zerbitzu ezberdinei buruzko hausnarketa bat azaltzen da eta, ondoren, proposamen orokorrak datoz.

Gero, aztertutako auzune, udalerri eta eskualde guztien diagnostiko zehatza azaltzen da, lurralde historikoka banatuak eta ikerlanaren funtsezko helburuari jarraituz, hau da, ahalik eta daturik zehatzenak emanez.

E.A.E. MAILAKO AZTERKETA ETA PROPOSAMEN OROKORRAK

3.1

Aztertu diren lau zerbitzuak, hau da, haur eskolak, eskola jantokiak eta, adinekoentzako zerbitzuen artean, Etxeko Laguntza Zerbitzua eta Egotetxeak, kontutan izanik, aztertutako zona bakoitzari dagozkion berariazko proposamenak egin dira. Badira, ordea, Autonomi Elkarteko lurralde-maila ororentzat berdinak diren proposamenak ere. Datu berberak behin eta berriz ez azaltzearren, zerbitzu bakoitzaren azterketaren ondoren proposamen orokor hauek ematea erabaki da.

HAUR ESKOLAK

3.1.1

HAURREN ZAINITZA

Haurrak zaintzeko era ezberdinei buruzko eztabaidaren funtsezko osagaiei emandako lehenespenez ordenaren eta beraien arteko elkarloturen arabera formula ezberdinak aterako zaizkigu, batzuk emakume eta gizonentzako aukera berdintasunaren mesederakoak, beste batzuk, aldiz, emakumeen garapenerako aukerak argi eta garbi eragozten dituztenak.

Emakume eta gizonentzako aukera berdintasuna bultzatu eta familiarenganako ardura hobetzeko jarreratik, etxeko lanetan eta familiarenganako erantzukizunetan sexu bien ardurakidetzat bultzatzean datza eztabaida honen abiapuntua. Hauxe izan beharko litzateke aurreneko eta funtsezko eginkizuna, zeren, hala gertatzen ez den bitartean, gizonezkoak familiaren bizitza-kalitateran eta familiako guztiekiko harremanetan, baina batez ere seme-alabekikoetan eragina duen erantzukizuna alde batera uzten ari baitira.

Eztabaidaren bigarren osagaia, berriz, enplegu-mota ezberdinetan eta lan baldintzen malgutasun-mailetan datza. Neurri hauen artean, lanaldia betetzeko malgutasuna eta lanaldi partziala edo gurasoentzako baimenak, guxtienez hamabi hilabeteko iraupena duten baimen ordainduak aipa daitezke. Zeharo desiragarriak diren neurri hauetaz emakumezkoak baliatu izan dira historikoki eta, horrenbestez, emakumeen lanbidea mugatuta egon da nolabait. Hortaz, neurri hauetaz gizonezkoak batik bat baliatuko liratekeeneko zenbait urtetako epealdia izan beharko litzateke.

Ardurakidetza beharrezkoa dela ahaztu gabe, ezkontideetako edozeinentzat familiarenganako ardura eta etxetik kanpoko lana bateragarriak izan ahal izateko neurriak ere proposatu behar dira. Honek hainbat alderdi dagozkien neurriak hartu beharra dakar eta, hain zuzen ere, hurrengookin: zerbitzuen, lantegien eta denden ordutegiak; hirietako ekipamenduak eta zerbitzuak familiaren bizimoduaren antolakuntzaren arabera kokatuak izatea eta familien beharrezan laguntzeko zerbitzu soziokomunitarioen sarearen garapena.

Epe laburrera, gure ingurunean hain zuzen, helburu biak, hau da, familiaren zaintza eta emakume eta gizonentzako aukera berdintasunaren sustapena bateratzeko neurri argienetako bat zerbitzu soziokomunitarioen hobekuntzan datza. Konbentzimendu horrek bultzatu gaitu azterlan hau egitera.

Europa mailan ere enpleguaren eta familiarenganako erantzukizunen arteko bateragarritasuna sustatzeko interes bizia nabari da eta, oraingoz haur-gaietako eskumenik ez dagoen arren, Europar Batzordearen haurrenganako laguntza Sarea (5) haurren eskubideak eta emakume eta gizonentzako aukera berdintasunaren aldeko lana aldi berean planteatzen dituzten txostenak eta gomendioak prestatzen ari da, batzordekide diren herrialdeei lau arlotako (hautzarora, gurasoen baimenak, familien beharrezanekiko malgutasunez hornituriko lan baldintzak lortzea eta partehartzearen sustapena) iradokizunak egin eta politikoki onartuak izan daitezela proposatuz.

Enpleguaren eta etxeko lanen bateragarritasuna oso garrantzitsua da gizarte osasuntsua izateko eta, hura bultzatzeko, zerbitzu sarea hobetzeaz gain, bi mailatako lanari ekin behar zaio:

Alde batetik udal mailako lanari, arduradun politikoak sentsibilizatuz, arazo honen garrantziaz ohartu eta proiektu berritzaileak dinamiza ditzaten edo gizarte eragileak udal mailako helburu eta lehentasunen arabera “bateragarritasun-planak” prestatzeko biltokiak izango diren eztabaidaguneak bultzatu ditzaten.

Beste alde batetik, enpresa mailako lanari ekin behar zaio, enpresariak lan baldintza malguagoak aton ditzaten eta udal enpresek udalaren bateragarritasun-planen helburuak lortzeko ekin diezaioten.

LOGSEA ETA HAUR ESKOLAK

Haur hezkuntza arautzen duen LOGSEk birplanteatu egiten du hura, Lehen Zikloa batez ere. Ziklo honetan laguntzazko irizpideek izan dute lehentasuna, baina, Lege honen hitzaurrean adierazten den moduan, LOGSE indarrean jarri denetik, hezkuntzarako eskubidea osatzen laguntzen duen hezkuntza sistemaren etapetako bat da haur hezkuntza ere, derrigorrezko hezkuntzara heltzeko hasierako desberdintasunei aurrea hartu eta konpentsatzeko jarduketatzat jotzen dela 64. art.an.

LOGSE aldarrikatu ondoren, ikastetxeen eskaintza birmoldatu beharra planteatzen da, hots, laguntzazko helburuak hezkuntza-pedagogiazko helburu bihurtu beharra; horretarako, ordea, ezinbestekoak dira antolaketa-planteamenduak aldatzea, instalazioak egokitzea eta langileak zentzuzko bete beharreko gutxienezko baldintzak ezartzen dituen indarreko arautegiaren (6) arabera prestatzea. Beste alde batetik, etapa honetako hezkuntza-helburuak mugatuz eta bere curri-

(5) Moss, Peter, Europar Batzordearen haurrenganako laguntza Sarearen koordinatzailea. “Informe sobre la atención a la infancia y la igualdad de oportunidades en la Comunidad Europea”, Infancia y Sociedad delakoan, 1 zk. Madril. Gizarte Arazoetarako Ministerioa. 1990.

(6) 1.044/1991 Erret Dekretua.

culuma zehaztuz, hezkuntzazko izaera (7) batez ere duten zentroak izateko behin-betiko urratsa emango da, curriculumaren oinarrizko alderdiak ezarriz eta Haur Hezkuntza, Lehen mailako Hezkuntzarekin batera, E.A.E.an ezar dadinean (8), hezkuntza sistemaren beste osagai bat bezala sartuz.

Horrela bada, aspaldiko haurtzaindegia Haur Hezkuntzako Zentro bihurtu beharra planteatzen da, horrek eskatzen dituen aldaketa guztiekin: curriculum eta antolaketa berriak, instalazioen egokitzapena eta langileen prestakuntza, besteak beste.

Prozesu hau, dena den, astiro joango da eta zeinek, nola eta noiz ekin eta kontrolatzen duen erabaki beharko da. LOGSEren 1. kapituluko 11. art. an zera ezartzen da: "Hezkuntza-administrazioek garatuko dute Haur Hezkuntza. Horretarako, hitzarmenak egin ahalko dira Udal Korporazioekin, beste Administrazio Publikoekin eta irabazasmorik gabeko erakunde pribatuekin".

Illo horretatik, azken bi ikasturteetan haur eskolako zerbitzuak eskaintzen dituzten Udalentzako laguntzetarako deialdiak egin ditu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak (9). Deialdi horietan, LOGSEk ezarritako beharkizunak oinaritzat harturik, ikastetxe hauen hezkuntza-proiektuak aipatzen dira.

Eredu berrira eta familien benetako beharrianetara egokituko bada, edozein proposamen planteatzerakoan, udal mailako planifikazioa eta familien egoera sozioekonomiko ezberdinen arabera beharrianak kontutan hartu beharko lirateke. Horretarako lehen urrtasa, berriz, bai Lehen Zikloko haurren beharrianetarako egokitzeko aldaketak egin daitezkeen instalazioez eta bai Haur Hezkuntzako Lehen Ziklo osoa ezartzeko behar den langileez hornituriko ikastetxe bat aukeratzea izan liteke.

Haur Hezkuntzako umeenganako laguntza, bai eta Lehen mailako Hezkuntzan dihardutenenganakoena ere, zentzu zabalean ulertu beharko litzateke, bi maila ezberdin kontutan hartuta. Alde batetik hezkuntza-maila, beronetan hezkuntza-pedagogiazko helburuei dagokien guztia sartzen da; eta bestetik, laguntzazkoa, hau da, askotan gurasoen lan ordutegien menpe dauden famili beharrianen arabera, behar duten ikasleei, irakastorduetatik kanpo, ikastetxeetan eman beharreko laguntzari dagokiona. Planteamendu hau ezin muga daiteke, orain arte bezala. Haur Hezkuntzara; aitzitik, ume haziagoengana ere heldu beharko litzateke, harik eta gurasoei eurek arduratzea eragozten dien lanaldian zehar bakarrik egoteko burujabe izan arte behintzak.

Ikastetxeek, beraz, osagarritzko helburuak dituzten bi ekintza-arlo planteatu beharra daukate.

- a) Eskola-orduak, derrigorrezkoak. LOGSEk etapa, ziklo eta maila bakoitzerako zehazten dituen hezkuntza-pedagogiazko helburuen arabera irakastorduak.
- b) Eskolatik kanpoko ordutegia, borondatezkoa eta malgua, familien lan ordutegien arabera, bai goizez eta bai arratsaldez luza litekeena.

Honek ez du inola ere esan nahi irakasleen lanaldia edo erantzukizunak zabalduko direnik, baizik eta ikastetxea zentro balioaniztun bilakatu nahi dela haren erabilera hezkuntza-komunitatearen beharrianetara egokituz.

(7) 1.330/1991 Erret Dekretua.

(8) 1992/8/13ko Agindua.

(9) 1992ko azaroaren 2ko Agindua, 1993ko abenduaren 30eko Ebazpena eta 1994ko ekainaren 20ko Agindua eta 1995eko uztailaren 27ko Agindua.

Gaur egun eskolatik kanpo burutzen diren jarduerak nolabait betetzen dute zeregin hori, baina, hemen azaltzen den planteamenduak egitura sendoagoa eta antolaketa zehatz eta eraginkorra behar ditu proposatutako helburuak lortzeko.

Elkarbizitzari, sozializazioari, higiene-ohiturei, lan ohiturei, adierazpen ludikoari eta abarrei dagozkien helburuak eskolatik kanpokotzat jo diren aldietan lor daitezke. Adierazpen-tailerrak, jolasak, sukaldaritza, aparteko laguntza, jolas-irakurketa, eta antzerako jarduerak ere aldi haue-
tarako proposa litezke.

Ezinbestekotzat jotzen da, bestalde, hezkuntza-komunitatearen zerbitzura dauden zentro hauen kudeaketan hainbat erakundek parte har dezatela, hala nola, Udalek, Aldundiek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailek, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzakoek.

Era berean, gurasoen presentzia ere garrantzitsua da, nahiz eta kudeaketaz profesional adituak arduratu beharko lirатеkeen, halako garrantzia duen proiektu bati zor zaion eragingarritasunaren mesedetan.

PROPOSAMEN OROKORRAK

Atal honetan hainbat proposamen azaltzen dira, proposamen amankomunak direla esan daiteke, berdintsu erabili ahal izango baitira aztertutako udalerrri guztietan:

- Jolas-taldeen sorrera bultzatzea gomendatzen da: 3 eta 6 urte bitarteko haurren garapena suspertzen duten ekintza ludikoak bultzatzea da helburua, eta zenbait kasutan, 0 eta 2 urte bitarteko umeak zenbait ordutan zaintzeko zerbitzua eskaintzea ere bai; ikastetxeetan edo udalak gutxi erabiltzen dituen bestelako lokaletan kokatuko lirатеke; zerbitzu hau orduka eta eskolatik kanpoko orduetan emango lukete langile kualifikatuak.
- Haur hezkuntzako ikastetxe batzuk oporraldietan ere irekita egoteko erraztasunak ematea, aita eta ama lanean dituztenen premia-
zko eskariari erantzuteko.
- Haur txikiak dituzten gurasoei zuzendutako haur hezkidetzari buruzko ikastaroak eskaintzera bultzatzea Haur Eskolak, udal mailan. Ikastaro puntualak dira, urtean behin eskainiko direnak eta iraupen laburrekoak.
- Gurasoak, hezkuntza-proiektuen prestaketara erakarriz, haurren hezkuntzan parte hartzera bultzatzea.
- Guraso bakarreko familietako haurrei Haur Eskoletan sartzeko bide ematea; halakoei lehen-
tasuna ematea gomendatzen da, ekonomikoki behartsuak diren familietakoei batez ere.
- Seme-alabak lehenetik badauden edo sor litezkeen ikastetxeetan errazago matrikulatu ahal izateko, familiarik behartsuenei dirulaguntzak emateko udal mailako politika indartzea go-
mendatzen da. Proposamen honen azkenengo helburua integrazio osoa lortzea da eta haur hezkuntza desberdintasunen zuzentzailea izan dadila.

ESKOLA JANTOKIAK

3.1.2

Autonomi Elkartean osoan eskola jantoki gehiago edo gutxiago egotea funtsezko elementu bat-
zuren menpean dagoela ematen du; elementuon artean, zerbitzuaren kostua, tamainua eta gurasoen bizilekua eta lan egoera aipa genitzake.

Jatekoaren salneurriak ere garrantzi handia du, behartsuenen kasuan izan ezik, eta halakoetan ere udal batetik bestera desberdintasun nabarmenak ageri direla, ez baitago horretarako diru-laguntzarik. Hortaz, familia askok ezin dio zerbitzu honen kostuari aurre egin edo, etxean baino garestiagoa gertatzen zaienez, ez dira hartaz baliatzen.

Zenbait ikastetxetan jantokiak martxan jartzeko joera nabari da, horrela eskaintza hobetu eta matrikulazio-kopuruaren murrizketa geldiarazteko agian; baina, edozein modutan ere, bete gabeko plazak ageri dira sarritan. Alderantzizko joera ere nabari da eta beste ikastetxe batzuek txandak ezarri behar izan dituzte eskariari aurre egin ahal izateko. Batzutan, eskaintzaren titulartasunak ere eragina izaten du baliabide honen erabiltzaile-kopuruan, lurralde-unitate ezberdinetan eskaintza pribatua eta publikoa egoteak eskola jantokien estaldura eta erabilpena baldintzatzen du.

Hurbiltasuna edo komunikabide-sare egokia direla medio, gurasoen ordutegiak eta seme-alabenak bateragarriak diren eskualdeetan, jantokiko plazen eskaintza urriak irauteko joera nabari da. Tarte handiagoak daudeneko eskualdeetan, aldiz, zerbitzu honetaz baliatzeko joera handiagoa ageri da.

Erdiko eta beheko maila sozioekonomikoa duten familiei eskola jantokiak erabiltzeko laguntza-aren bidez, familiako guztien zereginen bateragarritasuna lortzen laguntzeko eginkizunaz gainera, eginkizun pedagogikoa ere betetzen da, bai eta elikadura-mailakoa ere, familiaren elikadura-ohiturak behar bezalakoak ez direnean edo elikadura eskasa edo urria denean.

Eskolan diharduten guztien kopurua aintzat hartzen badugu, jantokien erabilera bultzatzeak kostu ekonomiko garrantzitsua du, baina, beheko gizarte-mailakoei mugaturiko laguntza kontutan harturik, kostuak aurre egiteko modukoak izan daitezke. Familien maila ezberdinen araberako laguntza mailakatuen politika batek, familiarik behartsuenentzat ez ezik, familia guztientzako ekintza positiboa proiektatzen du.

PROPOSAMEN OROKORRAK

Jarraian azaltzen diren proposamenek aztertutak izan diren udalerrietako gehienentzat balio dezakete:

- Ikastetxeak jantokirik ez duenean eta, beti ere, zerbitzua erabiltzeko garraio-arazoei eta kontzertaziokoei inplikaturiko aldean artean aterabidea eman ondoren, udalerriko beste ikastetxetako jantokiaren erabilera erraztea.
- Bete gabeko plazak daudenean, biztanleriari ikastetxe horien berri eman eta zerbitzu horretaz baliatu ahal izateko laguntzez informatzea.
- Ekolan dihardutenei oporraldietan ere jantoki-zerbitzua eta bestelako jolas-hezkuntzako ekintzak eskaintzeko zerbitzuaren sorrera bultzatzea. Horrela, ezkontide biek lanean diharduten familietako seme-alabek sasoi horietan jasaten duten arretarik eza konponduko litza-teke. Ez dirudi zerbitzu honekiko eskaria horren zabala izango denik, eta beraz, hasieran behintzat, zerbitzu hau edozein errazki heltzeko moduko toki batean kokatzea gomendatzen da.
- Ikasleen guraso-elkarteei (IGE) eskolako jantoki zerbitzuaren aholkularitzan, kontrolean, bai eta kudeaketan ere, parte hartzeko bide eman eta partaidetza hori lortzeko ahaleginak egitea.

— Azkenik, kasu bereziei (baliabide urriak, guraso bakarra, aita/amaren gaixotasuna, elbarriak, etab.) laguntzeko jantokiko plaza batzuk gordetzea ere egokia izango litzateke.

ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK

3.1.3

Adinekoentzako laguntzak garrantzi handia du emakumezkoen ardurapean, batez ere, egon ohi diren familia zaintzeko eginkizunen artean.

Arlo horretako zerbitzu ezberdinen asko dauden arren, datu erabilgarriak horren ugariak ez direnez gero, bi hedatuena aztertu ditugu, hots, Etxeko Laguntza Zerbitzua (E.L.Z.) eta Egotetxeak.

E.A.E.ko etxeko laguntza zerbitzuen laguntza izan dutenak 65 urtetik gorakoak % 2,7 izan dira, hau da, 7.141 pertsona; egotetxeen eskaintza, berriz, % 3,4ri heldu zaie, hots, 8.767 pertsonari (10). Beste alde batetik, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren iritziz, epe laburrera, %8,8k, hau da 24.000 pertsonak eguneroko jardueretarako laguntza beharko dute (11).

Zenbateko hauek eskaririk premiazkoenari dagozkion egungo estaldura eta etorkizuneko era-kusten dizkigute. Lehenengo talde honetaz gain, oinarrizko elkartasun-sarearen (familia, au-zokoak, etab.) laguntza duten adinekoak ditugu.

Adineko biztanleriaren beharrianak zeintzuk dira zehatzago jakiteko, 65 urte edo gehiago duen biztanleria eta adinekoentzako laguntza-mota nagusien eskaintza, hau da, etxeko laguntza eta adinekoentzako egotetxeak aztertu dira, bere kabuz baliatzeko gauza direnentzako egotetxeak laguntzazko egotetxe bihurtuz eta etxeko laguntzak gaur egun betetzen duen eginkizuna aldatu eta erdi-mailako laguntza behar dutenentzako zerbitzu, batez ere, bilakatuz joateko joera gero eta nabarmenagoa kontutan harturik.

Hain ezagunak ez diren beste era batzuetako laguntza zerbitzuak ere gero eta onarpen handia-goia dute erabiltzaileen eta berauen familien artean, hala nola, eguneko zentroak, egotetxe txi-kiak, babesturiko etxebizitzak, etab., zerbitzuak kudeatzeko eredu mistoa ere, hau da, publiko-pribatua, gero eta erabiliagoa dela.

Irizpide orokorreki dagokienez, adinekoentzako zerbitzurik onena euren ingurunean egoteko au-kera ematen diena dela diote gehienek. Prestazioaren kalitateari dagokion irizpide hau bat dator dauden baliabideen erabilera ahalik eta eragingarriena izan behar delako irizpidearekin, areago, urte hauetan gero eta nabarmenagoa den adinekoen hazkunde demografikoa eta baliabide era-bilgarrien hazkunderik eza kontutan harturik.

Kalitate irizpideak eta gastuaren kontrola bat etortzeak sare naturalaren gaitasunak interes han-diz aztertzeraz garrantzitsua, haren funtzionamenduaren bultzagarri gerta daitezkeen laguntza-mo-dalitateak zeintzuk izan daitezkeen jakin nahian. Halaber, ekimen pribatua ere, irabazasmorik gabekoa nahiz irabazizkoa, aintzat hartzen da, kostu konpetitiboez kalitatezko laguntza emateko gauza baitira.

(10) Etxeko laguntzari buruzko datuak hiru Aldundien 1993ko erregistroetatik atera dira eta egotetxeei buruzkoak 1992ko Gi-zarte Zerbitzuen Estatistikatik.

(11) Prestatzen ari den Gerontologi Plana dela eta, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak emandako datuak.

Joera hauek berrikuntzak ekarri dituzte laguntza-mota ezberdinetara eta, halaber, orain arte kontutan hartu gabeko hautabide berriei buruzko gogoeta sortarazi dute. Sare naturalaren ahalbideei dagokienez, baina, familiei beren etxeko lanak eta etxetik kanpokoak bateratzeko aukera eman diezaieketen zerbitzu soziokomunitarioak bultzatzeko irizpideari eutsiz nolanahi ere, familiakoen garapen-ahalbideak eta, emakumezkoenak hain zuzen, murriztu gabe eta sendotuz ere sare hori nola bultzatu planteatzen da.

Sare naturalaren aldekoek, beraz, perspektiba bikoitz hau kontutan hartu beharko dute, bata bestearen pentsura inoiz ere ez gauzatzeko. Ikuspuntu honetatik, emakumeek egiten dakitena baloratzea emakumezkoek tradizioz egin ohi dituzten lanak, gaixo kronikoenganako edo larri-larrienganako ardura, esate baterako, profesionalizatzea ekar dezakeen irizpide oparoa izan daiteke. Lanbide berri hauek, adinekoari bere ingurunean laguntzeko sare naturalari laguntza emateaz gain, gizarte osoari ere eginkizun horri buruzko balorazio berria erakuts diezaiekete.

Sare naturalari laguntzeko beste hautabide batzuk ere aipa daitezke: familiakoei egoera oso larrietarako (heriotza, zahartzaroko dementzia, etab.) prestakuntza tailerrak; urteko atsedendaldia, gaixotasuna edo bestelakoak direla eta, familak arazoak dituenean, adinekoa epealdi laburretarako egotetxean uzteko atsedeen-zerbitzuak; adinekoarekiko elkarbizitzari eusteagatiko zerga-kenkariak, etab. Zalantzarik gabe, laguntza hauek eta antzerako beste batzuk lagungarriak gerta dakizkioke familiari etxeko ardurak eta lanbideari dagozkionak bateratu ahal izateko.

PROPOSAMEN OROKORRAK

- Egonaldi mugatueterako egoitza-plazen sorkuntza. Hiru konponbide proposatzen dira: lehen, Administrazioaren ardurapeko egotetxeetako plazen % 2 horretarako gordetzea. Bigarrena, oporraldietan zehar, egoiliar finkoak betetako plazak erabiltzea, arauak eta beharrezko konpentsazioak ezarriz. Eta hirugarrena, erakunde pribatuekiko (egotetxeak, hotelak, pentsioak, ostatuak, etab. edo besteko formulak, betiere Administrazioak kasu bakoitzerako ezarritako beharkizunak betetzen direnean) itunak egitea aldi baterako plazak gordetzeko.
- Komunikabideetan Egonaldi Mugatueterako Zerbitzu hau eta berori eskatzeko bideak iragartzea.
- Osasun arazoak dituzten adinekoekin bizi diren familiei zuzendurik, adinekoenganako ardura eta laguntzari buruzko prestakuntza berezia eta iraunkorra emateko ikastaroak bultzatzea.
- Menpekotasun fisikoa edo psikikoa duten adinekoen arduratzen diren familiei laguntzea, haratarako baliabide tekniko eta teknologia berrietara heltzeko erraztasunak emanez.
- Bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako pertsonen etxerik gehienetan Tela-alarma Zerbitzuaren ezarpena bultzatzea.
- Etxe barruan oztopo arkitektonikoak ezabatzeko laguntzak sustatzea.
- Adituen ardurapeko Etxeko Osasun Laguntza Zerbitzua bultzatzea ere mesedegarria izango litzateke.
- Adinekoentzako doako pentsioei eta laguntzazko pentsioei buruzko informazio zehatzago ematea ere gomendatzen da, auzunerik behartsuenetan batez ere.
- Adinekoen eta beste pertsona batzuren arteko harremanak bultzatzea, kolektibo hau gizartean integratuago egon dadin.

- Erretiroari eta aurre-erretiroari buruzko prestakuntza-ekintzak eta informaziozkoak bultzatzea, adinekoek beren esku dauzkaten baliabideak, bizimodu osasuntsuari buruzko gomendioak eta abarrak ezagutu eta erabil ditzaten.
- Jubilatuen elkarteek ematen dituzten zerbitzuak zabaltzea ere mesedegarria izango litzateke, astialdian partaidetza biziagoa eskatzen duten ekintzen garatzen eta zerbitzu osagarriak ezartzen bereziki ahaleginduz.
- Adinekoentzako Gelak Bultzatzea kolektibo hau kultura-mailan dinamizatu eta suspertzeko.

LURRALDEKAKO AZTERKETA

3.2

Erabateko azterketa eta orokorrak gerta daitezkeen proposamenak ikusi ondoren, aztertu den lurralde-unitate bakoitzarentzat prestatutako berariazko proposamenak azalduko dira Lurralde Historikoka sailkaturik, Arabakoak, Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak, hurrenez hurren.

Kapitulu hau ulergarriagoa gerta dadin, aztertutako lurralde-unitate bakoitzaren daturik aipagarrienak biltzen dituen 5. Atalean agertzen diren datu-etaulak kontsultatzea gomendatzen da.

Beste alde batetik, azterketa zehatzagoa egin nahi bada, txosten honetako datuez gain, erabili diren adierazle eta datu guztiak eta diagnostiko zehatza azaltzen dituzten lurralde-unitate bakoitzari buruzko dossierrak ere edozein eskatzaileraren esku daude Emakundeko Dokumentazio Zentroan.

ARABA

3.2.1

HAUR ESKOLAK

Arabako haur eskoletan 1.559 plazatako eskaintza dago, 15 eta 49 urte bitarteko ama aktiboa duten 0 eta 3 urte bitarteko adingabekoen ahalezko eskaria, berriz, 4.140 plazatakoa litzateke. Estaldura-tasa % 37,7koa da, E.A.E.koaren parekoa. Hortaz, Arabak betetzen du lehen behar-kizuna, Elkartearen batezbesteko estaldura-tasara iristea alegia. Hala ere, eskaintzaren banaketa aztertu behar da eta, halaber, auzune, udalerrri eta koadrila bakoitzaren ahalezko eskariarekin konparatu eta alde bakoitzeko statusarekin erlazionatu.

Vitoria-Gasteizko auzune guztietan ageri da E.A.E.koaren bezalako estaldura edo hura baino handiagoa. Hortaz, aztertutako zenbait azpialdetan haur eskolarik ez badago ere, kokatuta daudeneko alde edo auzunean dagoen eskaintzaz gaingitzen da eragozpen hori. Zenbait azpialdetarako (Alde Zaharra, Aranbizkarra, Zaramaga eta San Cristobal) eginiko proposamenetan 0 eta 1 urte bitarteko umeentzako plaza-eskaintza gehitu beharra aipatzen da.

Laudion, guztira, 67 plaza daude La Plaza-Lamuza-Erdialdea auzunean. Hango estaldura-tasa Elkartekoarekin alderatuz gero, 25 plazatako defizita ageri da. Nolanahi ere, dauden baliabideen

erabilpen osoa lortzeko gomendioa egiten da, 12 plaza bete gabe daude eta. Interesgarria litzateke hemen ere 0 eta 1 urte bitartekoentzako plazak sortzea udalerriko zentroetakoren baten.

Eskualde-mailako haurrenganako laguntza zerbitzuen eskaintzaren arabera, hiru koadrila-mota ageri zaizkigu (12): Aialan Elkartekoa baino eskaintza handiagoa dago; Aguraingo eskaintza, al-diz, eskasa dirudi; Añanan, Kanpezun, Biasteri-Arabako Errioxan eta Zuian ez dago haurrentzako inolako zerbitzurik. Plaza-defizit ezberdinak nabari dira eta Kanpezun 10 behar diren bitartean Biasteri-Arabako Errioxa eskualdean 36 plaza falta dira.

Euren udalerrian halako zerbitzurik ez duten umeak haur eskoletara eramateko bi modu daude: garrai zerbitzu baten bidez edo bere garraiogailua duten familiei dirulaguntzak emanez.

ESKOLA JANTOKIAK

Arabako jantoki-plazei dagokienez, 15 eta 49 urte bitarteko ama aktiboa duten 3 eta 18 urte bitarteko adingabekoen ahalezko eskaria 21.934koa den bitartean, plaza-eskaintza 7.144koa baino ez da. Datu honek % 32,6ko estaldura-tasa erakusten du, E.A.E.ko % 51,3koa baino dexente txikiagoa.

Vitoria-Gasteizen ere Araban nabari diren joera berberak ageri dira. Ahalezko eskariari erreparatuz gero eskasa dirudien eskoletako jantoki-plazen eskaintza ez omen da horren eskasa, auzune guztietan baitaude bete gabeko plazak. Estaldura % 17ra iristen da, Elkarteko batezbesteko estaldura baino askozaz ere txikiagoa. Badirudi, dena den, Vitoria-Gasteizen, etxeak lantokietatik hurbil egotera, eskola jantokiaren zerbitzuarekiko eskaria txikiagoa dela. Hurbiltasun hori dela eta, etxetik kanpo lan egiten duten ama/aita duten familiei errazagoa gertatzen zaie etxean jatea.

Estaldura-tasarik eskasena nabari zaien auzuneak Olarizu, Erdialdea, Etorbidea, Iparralde eta Sansomendi dira. Judizmendi eta Abetxukon ere, egoera hobexeagoa ageri den arren, ez dira Elkarteko mailetara heltzen. Azkenik, Ariznabarra auzoan, eta beronen barne hegomendebaldeko landa-aldean, eta Mendizorrotzan udalerriko tasarik handienak ageri dira eta, horrenbestez, auzo horietako 3 eta 18 urte bitarteko biztanlei ez ezik, Vitoria-Gasteiz osokoei ere eskaintzen dizkiete jantoki-plazak. Alde hau ikastetxeen bilgune dugu; inguraldean egoteari eta erdialderako komunikazio egokiak izateari esker, seguruenik, hainbat ikastetxe kokatu dira bertan.

Olarizu auzunean 100-125 plaza atontzea gomendatzen da, horrela beste auzune batzuetako eskaintzarekin parekidetzeko. Auzune honetan beheko-erdiko status-maila nagusi delarik, lehen-tasuna izan beharko luke ekintza positiborako neurriez onuratzekoan: dirulaguntzak, etab. Darabiltzagun zenbatekoak aintzat harturik eta erdiko status-mailakoak izanik, Erdialdea, Etorbidea, Iparralde eta Judizmendi auzoetako jantoki-zerbitzuaren eskaintza ere areagotu egin beharko litzateke, baina, zenbait familiek seme-alabak beste alde batzutan kokaturiko ikastetxeetara bidaltzen dituztela ematen du.

Laudion, bestalde, ama aktiboa duten 3 eta 18 urte bitarteko 10 adingabekoetarik ia 6k jantoki-plaza batez baliatzeko aukera dute, beste udalerri batzuetakoa baino egoera hobea, beraz. Hala

(12) Koadrila- eta eskualde-mailako zerbitzu soziokomunitarioen azterketa 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak kontutan hartu gabe egin da, horiek bereizirik aztertu dira eta.

balegokio, familien dirusarreraren baremoa ezarri eta laguntza politika bat bultzatu beharko litzateke, jantoki zerbitzuaren erabilpena ahalik eta handiena izan dadin. Era berean, Aretan lehen-tasunez jardutea gomendatzen da, beherengo status-mailaz ageri da eta.

Estaldura-tasa handiak nabari dira Arabako koadrila guztietan. Somaturiko ahalezko eskariaren gainetik dagoen eskola-jantokien eskaintza ageri da gehienetan, badirudi, beraz, eskaintako plaza-tako asko beste koadrila batzuetatik edo udalerri handietatik etorritako adingabekoek betetzen dituztela. Horixe litzateke Lurraldeko ahalezko eskariaren % 12,3a dagokien Arabako koadrilek eskola jantokien eskaintzaren % 47 izatearen arrazoia.

Koadrila guztietan nabari den erabiltze urria da zerbitzu honen ezaugarri nabarmenena. Gertakari hau ezin esplika daiteke etxetik kanpo lanean diharduten ama gutxi izategatik, zeren eta erabiltze urri txikienez ageri den Aiala eskualdean baitago, hain zuzen ere, ama aktiboa duten 3 eta 18 urte bitarteko biztanle-tasarik txikiena. Erabiltze urri honen arrazoia, aitzitik, bai kuantitatiboki eta bai kualitatiboki desegokia den eskaintza edo, bestela, etxetik kanpo lan egiten duten emakumezkoak udalerrian bertan dihardutenez gero, bazkaltzera etxera joan daitezkeeneko baserri edo erdibaserrietarako jantoki-plazak kopurua gehiegizkoa izatean datza. Eskola-garraio egokia izatea edo ez izatea ere izan dezake zerikusirik bete gabeko plaza-egotearekin, koadrila osatzen duten udalerri guztietan ez baitago jantokidun ikastetxea. Egiten den proposamena, beraz, eskaintza eskariari egokitu eta, hala balegokio, familiarik behartsuenei laguntzeko politika bat bultzatuz, dauden baliabideen erabilpen ahalik eta handiena lortzean datza.

ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Arabako 1.195 adineko hartzen dute Etxeko Laguntza Zerbitzuaren urteko laguntza, hau da, 65 urtetik gorako biztanleen % 3,9k, Elkarteko batezbesteko estaldura gaitzen duen zenbatekoa alegia.

E.L.Z probintziako udalerri handienetan barrena zabaldu da batez ere; Laudion eta Vitoria-Gasteizen, hain zuzen, % 5,2 eta % 4,1eko estaldura-tasak ageri dira. Audio salbuespenetat jo daiteke, epe ertainera % 5eko estaldura erdiesteko helburua bete baita jadanik. Vitoria-Gasteizen, berriz, 2000 urterako 194 kasu berri laguntzea proposatzen da.

Arabako koadrila guztiak daude E.A.E.ko batezbesteko estalduratik hurbil edo haren gainetik. Epe ertainera lagundu beharreko kasu berrien kopuruari dagokionez, Kanpezuko 14etatik Aialako 36etara bitartean daude.

ADINEKOENTZAKO EGOTETXEAK

E.L.Z.aren kasuan bezala, adinekoentzako egotetxeen ezarpenaren azterketak bi helburutara garamatza: epe laburrera, E.A.E.ko batezbesteko estaldurara heltzea, % 3,4ra hain zuzen; eta, epe ertainera, 2000. urterako, hain zuzen, zenbateko hori % 5eraino gehitzea.

Arabako egotetxeetan, oro har, 1.681 plaza daude, hau da, adinekoen % 5,5eko estaldura-tasa. 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan bi errealitate oso ezberdinak nabari dira: Vitoria-Gasteizen % 6,7ko estaldura-tasa ageri den bitartean, Laudion % 1,7koa besterik ez da, hau da, 30 plaza baino ez daude. Gauzak honela, epe laburrera 30 plaza gehiago sortzea gomendatzen da, eta epe ertainera 58 gehiago. Egoteetako plaza-kopuru urri hau Etxeko Laguntza Zerbitzuaren eskaintzaz konpentsatzen da udalerri honetan. Bi baliabide hauek biztan-

leriaren sektore berberari badoazkio ere, komenigarria da betiere kontutan hartzea E.L.Z. ez dela egoitzazko laguntzaren ordezkia, nahiz eta egoitza-plazekiko eskaria murrizteko eta, batez ere, halako erakundeetan gero eta zaharrago sartzeko mesedegarria gerta daitekeen.

Aztertutako Arabako koadriletan egoitza-eskaintza arras ezberdinak daude. Egoera hoberena Biasteri-Arabako Errioxan, Aialan eta Zuian ageri da; Kanpezun eta, batez ere, Añanan, aldiz, egoera okerragoa da.

BIZKAIA

3.2.2

HAUR ESKOLAK

Haur eskolen eragina alderatzean, Bizkaiko egoera E.A.E.koa baino hobea dela ikus daiteke. Bizkaian % 41,6ra iristen da, E.A.E.an % 37,3ra.

Zerbitzu honen eskaintza eta eskaria aztertzean, berriz, 20.000 biztanle baino gehiago dituzten Bizkaiko udalerriak hiru multzotan sailka daitezke:

- a) Bizkaiko batezbestekoa baino estaldura-tasa txikiagoak dituzten udalerriak: Galdakao eta Sestao.

Galdakaon 103 plazatako eskaintza dago etxetik kanpo lanean diharduten gurasoak dituzten 0 eta 3 urte bitarteko 467 umerentzat. Estaldura, % 22,1ekoa, 20.000 biztanle baino gehiago dituzten Bizkaiko udalerrietako txikiena da. Eskaintzako zerbitzuaren batzuk, gainera, ez dira ego-kienak eskariaren ezaugarriak kontutan hartuta; izan ere, estaldura-tasa eskasa izan arren, zen-tro baten bete gabeko plazak aurkitu baitira. Elkarteko batezbesteko estaldura-tasara iristeko, 70 plaza berri gutxi gora-behera sortu beharko lirateke; nolabait ere, bete gabeko plazak dau-denez gero, lehenengo eta behin, arazo ekonomikoak dituzten familiei sarbidea erraztu eta dau-den baliabideen erabilpen gorena lortzea proposatzen da. Bigarrenik, zentro berri bat ireki edo lehendik dauden zentroen eskaintza gehitu eta 40-50 plaza berri sortzea gomendatzen da. Es-kaintza berri hau Gurutze-Erdialdea auzunean gauza liteke, ahalezko eskari handia duelako eta erdialdean kokaturik dagoelako.

Sestaon, berriz, % 27,5eko estaldura-tasa dago, badirudi, beraz, eskaintzen diren 85 plazak ez direla aski. Udalerria osatzen duten zazpi auzuneetan beheko erdiko statusa edo behekoa dira nagusi. 30-35 plaza gutxienez izango dituen haur eskola bat sortzea proposatzen da, gutxi-enezko estaldura-tasara heltzeko. Ahalezko eskariari bagazkio, ikastetxea El Carmen-Sotera de la Mier aldean koka liteke. Albiz auzunea ere proposa gerta liteke bere kokalekua aintzat hartuta. Plaza bakoitzeko prezioak ezartzerakoan, berriz, auzune guztietan nabari den beheko status-maila aintzakotzat hartu beharko litzateke.

- b) Bigarren multzoan Barakaldo, Basauri eta Bilbo daude. Elkarteko batezbesteko estaldura gainditzen dute, baina, hainbat arrazoi direla medio, haur eskolen eskaintza areagotzea pro-posatzen da.

Barakaldon hiru haur eskola daude, % 39,4ko estaldura-tasarekin. Plazarik gehienak hartuta daude eta bi ikastetxetan itxarote-zerrenda dago. Hau dela eta, 40-60 plaza berri sortzea pro-posatzen da. Horretarako, haur eskola berria sortzea erabakitzen bada, Deserto-Barakaldo au-

zoa proposatzen da kokagunetzat, bestela, Santa Teresa/Beurkon edo Lutzana-Burtzeñan koka liteke. Auzunerik gehienetan beheko-erdiko statusa nagusi dela kontutan hartu behar da eta, beraz, eskaintza errealitate horretara egokitu beharko dela.

Basaurin 210 plaza daude, % 40,8ko estaldura-tasaz. Eskaintza hau ez da nahikoa, dauden baliabideen erabilpena egokia izan arren, erantzun gabeko eskariak batirau (itxarote-zerrendak). Arizgoitin El Calero eta Basozelaiko biztanleak ere hartuko dituen haur eskola sortzea proposatzen da 40 plazaz.

8 auzune edo barruti handiz osaturiko Bilboko udaleko estaldura-tasa % 40,8ra iristen da. Zenbateko honek, oro har, gutxienezko estaldura gainditzen badu ere, barrutiz barrutiko azterketa egin eta berrikusi beharra da.

Uribarri, Basurto-Zorrotza eta Abando auzuneetan ez dira Elkarteko estaldura-tasara heltzen, % 26,4, % 7,3 eta % 29arekin, hurrenez hurren. Lehenengo bietan haur eskoletako plaza-kopurua gehitzea proposatzen da. Uribarrin, berriz, 50 plazatako ikastetxe bat ezartzea proposatzen da, dela Matiko-Ciudad Jardín auzoan, erdiko auzoa baita, dela Uribarrin, ahalezko eskaria aintzat hartuta. Bi auzoetan nabari da beheko-erdiko status-maila.

Basurto-Zorrotzan eskainitako plaza-kopurua oso urria den arren, 36 plaza hain zuzen, ez dago itxarote-zerrendarik. Jendeak halako zerbitzu bat eskatzeko kontzientziatorik ez izatea izan daiteke horren arrazoiak. Basurton 50-60 bat plaza eskainiko dituen zentro bat sortzea proposatzen da, berorretara bideratuko litzateke, halaber, Mazustegi-Monte Caramelo, Olabeaga eta Altamira auzuneetako eskaria. Hauetako batzuk urruti samar daudenez gero, garraiorako laguntzak ezarri beharko litzateke, beheko edo erdi-beheko status-mailako familiei batik bat emateko.

Abando barrutiko zenbait ikastetxetan bete gabeko plazak antzeman dira, beste batzutan, ordea, ezinezkoa gertatu da eskari guztiak betetzea. Barruti honetarako proposamenaren ardatza dauden baliabideak ahalik eta egokien erabiltzean datza, biztanleriari eskolatzearen onurak (hezkuntzazko izaera, gizartekoitasunaren eta burujabetasunaren garapena eta anomalia edo gaitasunak detektatzea) erakutsiz eta eskaintza (kalitatea eta prezioaren arteko erlazioa) hobetuz.

Otxarkoaga-Txurdinaga eta Alde Zaharra barrutietan ezaugarri berdintsuak ageri dira: estaldura-maila Elkartekoaren antzekoa da; eskaintza ez da halako zerbitzuak eskatzen dituen biztanle guztiengana heltzeko modukoa; erdi-beheko edo beheko status-maila da nagusi bi barrutietan. Gauzak honela, haurrentzako plaza-kopurua gehitzea proposatzen da bi auzo hauetarako. Txurdinagan, berriz, 30 plazatako haur eskola sortzea proposatzen da. Abusun eta San Frantziskon ere antzeko zentro bat ezar liteke. Ekipamendu hauetarako beharrezkoak diren inbertsio handiak kontutan harturik, zentro hauek alde horietako ikastetxeetako instalazioetan ezarriko litzateke. Izan ere, matrikulazio-kopuruan azken urteotan nabari den murrizketa nabarmena dela medio, ikastetxeetako instalazioen erabilpena ez da erabatekoa eta hori mesedegarria gerta daiteke proiektuaren bideragarritasunerako.

Azkenik, Bilboko gainontzeko barrutietan (Deustu, Begoña, Errekalde) eskainitako plazen eta eskolatutako haurren portzentaiak handiak dira eta egoera hobea erakusten dute.

c) Azkenengo multzoa Elkarteko batezbesteko estaldura-tasa gainditzen duten eta haurrenganako laguntza baliabideak zabaldu beharrik ez duten udalerriena da. Multzo honetan Portugalete, Erandio, Santurtzi, Durango, Getxo eta Leioa daude.

Portugaleteko zenbait zentrotan, hala ere, plaza-eskea dago, beste batzutan, aldiz, bete gabeko plazak ere badaude. Gauzak honela, haur eskola batzuren eskaintza, kalitatea, prezioa, eta/edo

zerbitzuaren kokalekua direla medio, ez dela eskatzaileen nahi eta beharretara egokitzen ematen du. Beste alde batetik, Repelaga-San Roke, La Florida, Buenavista eta Alde Zaharra direlako auzoek osaturiko alde garrantzitsuan ez dago haurrentzako baliabiderik. Hortaz, La Floridan haur eskola bat sortzea platea liteke, baina, azterlan honetan erabilitako irizpidea, hau da, gutxieneko plazak betetzearena, ekimen horren aurkakoa da.

Erandion, % 57,8ko estaldura-tasa izan arren, eskaintzaren bi herenak 0 eta 3 urte bitarteko biztanle-kopururik txikiena duen auzoan dago, eta ahalezko eskaririk handiena duen auzunean, Erdialdea-Altzagan, ez dago halako baliabiderik.

Santurtzin, berriz, etxetik kanpo lan egiten duten gurasoak dituzten 0 eta 3 urte bitarteko bi umeetarik batentzako plazak daude haur eskoletan. Zazpi auzuneetako hirutan (El Burgo, San Juan eta Kabiezes) beheko statusa da nagusi, baina 3 urtetik beherako ume-kopurua ere txikia da.

Durangon haurrentzako bi zentro daude, eta biak etxetik kanpo lan egiten duten gurasoak dituzten 0 eta 3 urte bitarteko ume gutxi dagoen auzo periferiko batean, San Juan de Itziar-Tabira-Gainontzeko Baserrialdea. Geroko etapetako hezkuntza batik bat eskaintzen duten ikastetxeetan kokatuak dira.

Getxoko haurrentzako zerbitzuen egoera bikaina da E.A.E.ko beste herrialde batzutakoaren aldean, baina, nolana ere, hobeia izan zitekeen, eskaintzen diren 1.045 plazetarik % 21,2 bete gabe daudela kontutan harturik. Udalerrri honetako batezbesteko status-maila goikoa-erdikoa da, Las Arenas eta Neguri auzoetako goiko statusa nabarmentzen dela.

Leioako haur eskolen plaza eskaintza, berriz, etxetik kanpo lan egiten duten gurasoak dituzten 0 eta 3 urte bitarteko ume-kopurutik gorakoa da, hots, estaldura-tasa 105,2koa da. 421 plazak bi auzotan daude: Negurigane-Sarrienan eta Erdialdean.

10.000tik 20.000ra bitarteko biztanle-kopurua duten udalerriei dagokienez, egoera ezberdinak somatzen dira: Amorebieta-Etxanon eta Ermuan ez dago haur eskolen eskaintzarik. Udalerrri hauetako familiek beste udalerri batzutara jo behar dute, umeentzako plazaren bat lortu nahi badute. Amorebieta-Etxanon 75 plaza eta Ermuan 53 plaza sortzea proposatzen da.

Trapagarango estaldura-tasa % 17,3ra iristen da, 14 plaza gehiago sortzea proposatzen da. Babiliteke, bestalde, haur eskolarik ez duten edo plaza gehiago behar dituzten udalerri hauetako batzuk ikastetxeetan 2 eta 3 urte bitarteko haurrentzako ikasgelen ezarpenaz onuratzea.

Gainontzeko udalerrietako estaldura (Bermeo, Gernika-Lumo, Mungia eta Ondarroa) Elkarteko batezbestekoa bezalakoa edo handiagoa da.

Bilbo Haundian izan ezik, Bizkaiko gainontzeko eskualdeetan ez dira E.A.E.ko batezbesteko estaldurara heltzen. Sortu beharreko plaza-kopurua Gernika-Bermeoko 45 plazetatik Plentzia-Mungiako 117 plazetara doa.

Mankomunitateetan ere antzeko egoera somatzen da: Durangoko Merinaldeko estaldura-tasa onargarria da; gainontzeko merinaldeetakoa, aldiz, ez da behar adinakoa.

Bai eskualdeetan eta bai mankomunitateetan nabari den haur eskolen defizit hau, askotan, biztanleria baserrialdeetan eta bizilagun gutxiko aldeetan barrena sakabanaturik dagoelako sortzen da; horrez gainera, baserrialdeetako familiek halako zerbitzuak eskatzeko sentsibilizazio txikiagoa erakutsi ohi dute eta, horrenbestez, baliabide hauek ezartzea zailagoa gertatzen da. Hau da, tradizioetan errotuagoa den eskariari beronek eragin dezakeen eskaintza urria gehitzen zaio. Aztertu diren haur eskolek, oro har, udalerrriko biztanleei zuzentzen dizkiete beren zerbitzuak;

inguruko herrien eskariari dagokionez, zenbat eta urrunago egon orduan eta zailagoa gertatzen zaio haur eskolari eskaria bereganatzea. Hortaz, eskualde edo mankomunitatea osatzen duten udalerriek eskoletara joateko garraio-zerbitzuak bultzatzea gomendatzen da.

ESKOLA JANTOKIAK

Eskola jantokiak era ezberdinetan ezarri dira 20.000 biztanle baino gehiago dituzten Bizkaiko udalerrietan.

- Barakaldon, esate baterako, Santa Teresa/Beurko eta Retuerto/Regato-Kareaga azoetan izan ezik, gainontzekoetan ez dira Elkarteko batezbesteko estaldura-tasara heltzen. 500 plazatako defizita ageri da eta, horrenbestez, zerbitzu hau ez duten ikastetxeak hornitzea proposatu da.
- Basauriko auzuneen artean, Basozelai eta Uribarrin nabari dira estaldura-tasarik handienak. Tasarik eskasena, berriz, Pozokoetxe, El Calero eta Benta auzoan ageri dira, hauetan jantoki-plazak falta baitira. Hortaz, udalerria Elkarteko batezbesteko estaldura-tasara heltzeko sortu behar diren 200 plaza berrietako batzuk auzune hauetan kokatu beharko lirateke.
- E.A.E.an bezala, Bilbon ere, etxetik kanpo lan egiten duten gurasoen seme-alabetako erdiek jantoki-plaza batez baliatzeko aukera dute. Auzuneen artean, ordea, desberdintasunak nabari dira:
 - a) Zerbitzu honen ezarpen-maila oso handia da Deustu, Uribarri, Otxarkoaga-Txurdinaga, Alde Zaharra eta Abando barrutietan. Honako azpialdeak nabarmentzen dira: Deustun, Deustuko San Pedro-Ribera eta Arangoiti; Uribarrin, Castaños, Matiko-Ciudad Jardín eta Zurbaran-Arabella; Otxarkoaga-Txurdinagan, Otxarkoaga; Alde Zaharrean, Atxuri, San Adrián, Iturrialde eta Abusu; Abandon, azkenik, Abando eta Indautxu.
 - b) Jantoki-plaza gutxiegi Begoña, Errekalde eta Basurto-Zorrotza barrutietan. Begoñako barrutian 600 bat jantoki-plaza sortzea proposatzen da, Begoña eta Bolueta azpialdeetan batez ere. Errekalden eta Basurto-Zorrotzan, berriz, estaldura-tasa txikia izan arren, zerbitzua ez dela erabat erabiltzen ikusi da; hortaz, erabilpena bultzatzea proposatzen da, horretarako, hala balegokio, familien dirusarreraren arabera baremo bati jarraituko liokeen laguntza-politika bat ezarriz.
- Durango, % 57,5eko estaldura-tasa dago. Eskola jantokien banaketa egokitzen jo daiteke, hurbileko inguruan eskaintzarik ez duen auzune bakarreko (San Fausto) biztanleak erraz hel baitaitezke estaldura ona duten bi aldetara (San Juan de Itziar-Tabira- Gainerako Baserrialdea eta Alde Zaharra).
- Erandioko eskola jantokien egoera E.A.E.koaren antzekoa da. Auzuneen arteko desberdintasunak nabari dira, eskaintzari ez ezik, eskariaren jokamolde desberdinei ere zor zaiena (ikastetxe publikoetan eskari nabarmena dagoen bitartean, ikastetxe pribatuetakoa eskasagoa da).
- Galdakaon 100 bat jantoki-plaza ezartzea proposatzen da, dagoen estaldura-tasa ez baita gutxienezko mailara heltzen. Agirre-Aperribai, Tximelarra eta Zuazo-Arkotxa-Santa Bárbara auzoetan ez dagoela jantoki-eskaintzarik kontutan hartu beharra da.
- Getxoko jantoki-plazaren estaldura-tasa Elkartekoa baino txikiagoa da. Tokiko lurralde-azterketak egoera ezberdinak erakusten dizkigu: Elkarteko batezbesteko estalduraren antzekoa

duen alde bat, Santa María alegia; behar adinako estaldurarik izan gabe, etxetik kanpo lan egiten duten gurasoak dituzten 3 eta 18 urte bitarteko biztaleriaren bosten bati, gutxienez, jantoki-plaza ziurtatzen zaioneko aldeak, hala nola, Romo, Neguri eta Algorta; eta azkenik Las Arenas, non ahalezko eskariaren % 10ari ere ez baitzaio plazarik ahalbidetzen.

- Etxetik kanpo lan egiten duten gurasoak dituzten 3 eta 18 urte bitarteko biztanle-kopurua baino plaza-kopuru handiagoa eskaintzen deneko Bizkaiko udalerri bakarra Leioa da. Eskainitako plaza hauek udalerrian bizi den 3 eta 18 urte bitarteko biztanleriaren esku dauden arren, Leioa inguruan ikastetxe asko, pribatuak batez ere, kokatu izan dira aspalditik. Hiri-gune haundien inguruan egonik eta komunikabide-sarea egokia izanik, alde ikasle-hartzaile bihurtu da.
- Portugaleteri dagokionez, 3 eta 18 urte bitarteko 10 adingabekoetarik 4k eskola jantokiko plaza bat lortzeko aukera badute ere, 320 plaza gehiago sortu beharra dago. Interesgarria izango litzateke plaza hauetako batzuk Erdialdean, La Floridan, Abaro-Muellen eta Azetan sortzea. Portugaleten, bestalde, bada beste aipagarrikerik ere: jantokia duten ikastetxe publikoetan AMPA (Ikasleen Gurasoen Elkarteak) direlakoak arduratzen dira haren kudeaketaz. Jantoki publikoen artean, halaber, lekualdaketak egiten dira eskatzaile gehiagori lagundu ahal izateko.
- Santurtzin, oro har, 475 jantoki-plaza falta dira eskoletan. Bi auzunetan, beheengo status-maila duten San Juan eta Kabiezesen hain zuzen, Elkarteko batezbesteko estaldura-tasa gainditu egiten dute. Beste muturrean El Burgo eta Las Viñas daude, hauetan ez baita zerbitzu hau eskaintzen.
- Azkenik, Sestaon, Elkartekoa baino estaldura-tasa txikiagoa ageri da; hortaz, 450 jantoki-plaza sortzea proposatzen da. Eskaintzarik ez duten auzuneak hauek dira: Markontzaga, El Carmen-Sotera de la Mier, Kueto eta Simondrogas-Urbinaga-Rebonza.

10.000etik 20.000ra biztanle dituzten Bizkaiko udalerrien artean ere egoera ezberdinak ageri dira:

- Etxetik kanpo lan egiten duten gurasoak dituzten 3 eta 18 urte bitarteko biztanle-kopurua baino jantoki-plaza gehiago eskaintzen dituzten udalerriak (Amorebieta-Etxano, Ondarroa eta Mungia). Alde hauetako eskaintza bertakoei nahiz inguruko herrietakoei zuzentzen zaie.
- Elkartekoa baino estaldura-tasa handiagoa duten udalerriak: Bermeo eta Gernika-Lumo.
- Jantoki-zerbitzuaren eskaintza gehitu beharra dagoeneko udalerriak: Trapagaran, eta Ermuan, hain zuzen, 125 plaza eta 500 plaza behar dira, hurrenez hurren. Herri bi hauetan nabari den beheko status-maila ere kontutan hartu behar da, diseinaturiko eskaintza ahalezko eskariaren ezaugarrietara egokitua gerta dadin.

Eskualde guztietan ageri dira E.A.E.koa baino estaldura-tasa handiagoak. Zentzu horretan, Bilbo Haundia, Arratia-Nerbioi, Durangaldea eta Markina-Ondarroa nabarmentzen dira.

Bizkaiko Mankomunitateetako estaldura-tasak ere Elkartekoa baino handiagoak dira, Txoriherrikoa, Arratiakoa eta Lea-Artibaikoa gailentzen direla.

Eskualdeak eta mankomunitateak aztertzean, udalerrri txikietan kokaturiko ikastetxe askotan biztanle-gune haundietako ikasleak dituztela ikusten da. Horrela ulertzen da eskolarako ikasle gutxi duten herri horietan horrenbeste eskola jantoki izatea.

ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Bizkaian 65 urtetik gorako 3.393 pertsonak hartzen dute halako laguntza, hots, ez da Elkarteko estaldura-tasara heltzen.

20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien artean, Barakaldo da estaldura-tasarik txikiena duena, % 1,5ekoa hain zuzen; beste muturrean Durango, % 3,3, eta Basauri, % 3,7, daude.

Elkarteko estaldura-tasa, hau da, % 2,7koa, erdietsiko badute, epe laburrera zahar gehiagori laguntza eman beharko dieten udalerriak berriz, Barakaldo, Galdakao, Erandio, Getxo eta Portugalete dira. Epe ertainera, 2000 urterako hain zuzen, udalerri guztiek indartu beharko dute E.L.Z., 65 urtetik gorako biztanleen % 5eko estaldura-tasa lortzeko.

10.000tik 20.000ra biztanle dituzten udalerriak, berriz, honela sailkatzen dira: alde batetik, Elkartekoa baino estaldura-tasa handiagoa dutenak daude, hots, Ondarroa, Gernika-Lumo eta Trapagaran; bestetik, gainontzekoak (Bermeo, Mungia, Ermua, eta Amorebieta-Etxano) ditugu, E.A.E.ko estaldura-tasara heltzeko, laguntza-hartzaileen kopurua epe laburrera gehitu beharko luketenak.

E.L.Z. Autonomia Elkarteko herri guztietan barrena hedatuz joan den arren, estaldura-mailak aztertuz gero, 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan eragin txikiagoa duela antzematen da. Eskualde gehienetan 65 urtetik gorakoen % 2ko estaldura-tasak ageri dira. Zentzu honetan, Gernika-Bermeo eskualdea aipatu beharra dago, % 1eko estaldura-tasaz.

Mankomunitateetan ere eskualdeetan ageri den joera berbera dachusagu. Arratian izan ezik, gainontzekoetan % 2,7tik beherako estaldura-tasak daude. Estaldura-tasarik txikienak Txoriherrikoa eta Enkarterrietakoa dira, % 1,5 eta % 2koa hurrenez hurren.

ADINEKOENTZAKO EGOTETXEA

Bizkaiko egotetxeei eta berauen ezarpen-mailari buruzko azterketari ekin aurretik, E.L.Z.aren aldean dituzten ezaugarri bereziak aipatu behar dira. Azterketa honetan, herri batean eskaintzen diren egoitzazko plazak eta zerbitzu horren ahalezko eskatzaileak konparatzen dira. Udalerri batzutan formula honek ez du inolako arazorik sortzen eta bertako errealitatea erakusten du, zerbitzua, funtsean, bertan bizi direnentzat baita. Arazoa, ordea, egotetxea pribatua denean sortzen da, bezeroak ez baitira herri batekoak, askotakoak baizik. Nolanahi ere, egotetxea kokatuta dagoen inguruneko biztanleei beste urrutiagokoei baino errazagoa gertatuko zaie bertaratzea eta, horrenbestez, ingurukoaren proportzioa handiagoa izan ohi da. Egotetxe publiko haundietan (eskainitako plaza-kopuruari dagokionez) aldiz, beste arazo bat izaten da, zeren, kasu hauetan, udalerriko biztanleei ez ezik, plazak Lurraldeko edozein udalerritako biztanleei eskaintzen baitaizkie.

Helburua Elkarteko estaldura-tasara heltzea bada, Bizkaian plaza gutxiegi eskaintzen da.

Aztertu diren lurralde-unitate guztientzat, epe laburrera % 3,4ko estaldura-tasa eta epe ertainera % 5ekoa lortzea da helburua.

Ikerlanaren mugak aintzat harturik, Leioan izan ezik, 20.000 biztanle baino gehiago dituzten Bizkaiko gainontzeko udalerri guztietan, egoitzazko plaza-kopurua gehitu beharra dago epe laburrera eta epe ertainera. Estaldura-tasarik txikienak Galdakao, Santurtzin, Sestaon, Basaurin, Barakaldon eta Portugaleten ageri dira.

10.000tik 20.000ra biztanle dituzten udalerriei dagokienez, Gernika-Lumon, Ondarroan eta Mungian aurkitzen dugu egoerarik hoberena. Bermeon, 65 urtetik gorako 100 pertsonatatik 3k hel diezaioke egoitzazko plaza bati. Azkenik, Amorebieta-Etxano, Ermua eta Trapagaran aipatu behar dira, herri hauetan ez baita egoitzazko plazarik eskaintzen.

Autonomia Elkarteko batezbesteko estaldura-tasa gainditzen duten Bizkaiko eskualdeak, berriz, Enkarterriak, Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia dira; Arratia-Nerbioikoa batezbestekoaren antzekoa da eta Bilbo Haundian eta Durangaldean egoera kaskarragoa dago.

Txoriherrikoa da egoitzazko plazarik eskaintzen ez duen mankomunitate bakarra. Gainontzeko mankomunitateetan estaldura-tasa oso ezberdinak daude: Arratian eta Durangoko merinaldean estaldura oso eskasa dagoen bitartean, gainontzekoetan Autonomia Elkarteko batezbestekoa baino estaldura-tasa handiagoak nabari dira.

GIPUZKOA

3.2.3

HAUR ESKOLAK

Gipuzkoan, guztira, 2.831 plaza zenbatu dira haur eskoletan, hau da, Autonomia Elkarteko eskaintzaren % 27,1. Estaldura % 30,3koa izanik, E.A.E.ko % 37,3koa baino txikiagoa da.

20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriei dagokienez, honakoak aipa daitezke:

- Arrasaten, 75 plaza dauzkan haur eskola dago, baina ez da E.A.E.ko estaldura-tasara heltzen. 75 plaza berri sortzea gomendatzen da; ahalezko eskaria eta kokagunea kontutan hartuta, Erdialdea izan liteke kokalekurik egokiena.
- Donostiako 10 auzoei dagokienez, Egian, Loiola-Martutenen, Erdialdean eta Ulian ez dago haur eskolaren eskaintzarik. Aipaturiko lehen bietan (beherengo status-maila dutenak) 40 plazako zentro bat sortzea proposatzen da. Amara-Zabalgunean eta Grosen, berriz, eskaintza ez da egokia, baina inguruneakoz baliatzen dira. Gainontzeko auzoetan E.A.E.koaren antzeko estaldura-tasak edo handiagoak daude.
- Eibarren, ofizialki behintzat, ez dago haurrenganako laguntza zentrorik. Zenbait azterlanen arabera, ikastetxeetan integraturiko “Bi urteko ikasgelak” daude. Azkarki hedatzen ari dira Elkartean barrena, Gipuzkoan batez ere. Baliteke Eibarren ere halakoren bat izatea; datu objektiborik ez dugunez, Eibarren haur eskoletako 70-90 bat plaza sortzea gomendatzen da etxetik kanpo lan egiten duten gurasoak dituzten 0 eta 3 urte bitarteko 349 eibartarrentzat.
- Irungo egoera hobe da haur eskolei dagokienez. Izan ere, San Miguel-El Pinar-Anzaran, Ventas, Uranzu-Arbes, Beraun-Santiago-Dunboa, Lapice eta Larreaundi auzoetan badaude hainbat baliabideak.
- Erreenteriako bi haur eskolak Beraunen eta Alaberga-Versallesen daude. Erdialdeko auzoak izanik, gainontzeko auzoetako haurrak erraz hel daitezke haietara. Hala eta guztiz ere, plaza erabilgarrien kopurua lanaren aldetik aktiboak diren gurasoak dituzten 0 eta 3 urte bitarteko irundarren kopuruarekin erkatuz gero, nolabaiteko defizita antzematen zaio haurrenganako laguntza zerbitzuen eskaintzari. Udalerriko egoera hobetzeko, Erdialde auzoan 60 plaza sortzea proposatzen da.

10.000 biztanle baino gehiago eta 20.000 baino gutxiago dituzten Gipuzkoako udalerriei gagozkiola, Azkoitian, Lasarte-Orian, Oñatin eta Zumarragan ez dago halako zentrorik. Denetan 25-50 bat plaza eskainiko dituzten zentroak sortzea proposatzen da. Azpeitian, Bergaran, Hernanin, Tolosan eta Zarautzen, berriz, haur eskolak izan arren, plaza gutxiegia eskaintzen dira, Autonomia Elkarteko batezbesteko estaldura-tasara ere ez dira heltzen eta.

Gainontzeko udalerrietan (Andoain, Beasain, Elgoibar, Hondarribia eta Pasaia), azterlan honetan zehar gutxienezkotzat jotako tasara heltzen dira.

Urola-Kosta eta Donostialdea eskualdeetan izan ezik, Gipuzkoako gainerako eskualdeetan haur eskolako plaza gutxiegia dago, askotan, biztanleria baserrialdeetan eta biztanle gutxiko aldeetan sakabanaturik bizi delako eta halako zerbitzuak eskatzeko sentsibilizazio txikiagoa dagoelako.

Zarautzko Mankomunitatean Autonomia Elkartekoa baino estaldura-tasa handiagoa nabari da; Deba-Behean eta Deba-Garaian tasa txikiagoak daude, eta Urola-Garai delakoan ez dago halako baliabiderik.

Aztertutak izan diren haur eskolen zerbitzuak, normalean, udalerriko haurrentzat izaten dira; beste herri batzutatik urruti egotera, inguruko udalerrietako eskaria bereganatzeko eragozpenak izaten dira. Hortaz, eskualdea nahiz mankomunitatea osatzen duten udalerrien arteko garraio-zerbitzuak bultzatu behar dira haur eskoletara joateko.

ESKOLA JANTOKIAK

Gipuzkoan, ama aktiboa duten 3 eta 18 urte bitarteko biztanleen % 44,7k hel diezaioke eskolako jantoki-plazari.

20.000 biztanle baino gehiago dituzten Gipuzkoako udalerrien ezaugarri nagusiak hauek dira:

- Arrasaten estaldura-tasa onargarriak ageri dira eskola-jantokia eskaintzen duten auzoetan, auzook, gainera, ahalezko eskaririk handiena dutenak dira, hots, Erdialdea, San Andres eta Uribarri-Urbe. Hala ere, estaldura-tasa gehitxeko, jantoki zerbitzua 200 plazaz gehitu eta halako zerbitzua ez duten ikastetxeetara ere hedatzea proposatzen da.
- Donostian, oro har, eskola-jantokiko 10.505 plaza daude zerbitzu horren eskatzaile izan litezkeen 15.372 donostiarrentzat. Zerbitzuaren ekipamendu-maila Autonomia Elkarteko batezbestekoa baino hobea da. Udal mailan, Loiola-Martutene, Ulia, Egia, Intxaurren eta Antiguo-Aiete-Donostia Hegoaldea eta Mendebaldea auzoek estaldura-tasa handiak dituzte. Gainontzeko auzoak, E.A.E.koa baino estaldura-tasa txikiagoak izan arren, inguruko auzoen eskaintzaz baliatzen dira.
- Eibarren estaldura-tasa onargarria, % 56,2, ageri bada ere, 3 eta 18 urte bitarteko biztanleentzako eskolako jantoki eskaintza zabaldu beharra dago, adin horretakoak baitira, hain zuzen ere, baliabiderik gutxien dituztenak.
- Irun eta Erreterian egoera berdintsua dakusagu. Bi udalerrietan, lanaren aldetik aktiboak diren gurasoak dituzten 3 eta 18 urte bitarteko biztanleriaren herenak baino ezin hel diezaioke eskolako jantoki plaza bati. Irunen, hain zuzen, Anaka-Jaizubia-Urdanibia, Ventas, Diseminados Behobia-Bidasoa Baserrialdea eta Alde Zaharra auzoetan izan ezik, gainerako auzoetan eskolako jantokien eskaintza sortzeko ahaleginak egin beharko lirateke. Hasiera batean, jantokiko 500 plaza sortzea proposatzen da.

Errenterriari dagokionez, Erdialdea, Galtzaraborda, Beraun, Iztietia, Pontika, Gabierrota-Larzabal eta Baserrialdea auzoetako estaldura-tasa txikiegia da. Irunen bezalaxe, eskola-jantokiaren eskaintza 500 plazaz gehitzea proposatzen da. Gehikuntza hau azken urteotan gero eta gehiago erabiltzen den catering zerbitzuen bidez gauza liteke.

10.000tik 20.000ra biztanle dituzten udalerriei dagokionez, Tolosa da egoerarik hoberena duena. Elkarteko batezbestekoa baino estaldura-tasa txikixeagoekin ageri dira Oñati, Hondarribia eta Elgoibar. Andoain, Azkoitia, Beasain, Bergaran, Hernanin, Pasaia eta Zarautzen, berriz, ahalezko eskariaren % 20tik % 40ra bitarteko estaldura-tasak daude. Estaldura-tasarik txikienak Azpeitian, Zumarragan eta Lasarte-Orian nabari dira.

Ezaugarri orokor bat nabarmentzen da, alegia, 10.000tik 20.000ra biztanle dituzten Gipuzkoako hamalau udalerrietatik hamalautan ez direla plazak erabat erabiltzen. Hortaz, eskaintzaren ezaugarriak biztanleriaren benetako beharrianetara egokitzen ote diren aztertu beharko litzateke. Seguruenik horixe izango baita jantoki-plaza gutxi baina lanaren aldetik aktiboak diren gurasoak dituzten haur eta gazte asko bizi direneko udalerrietan halako egoera izatearen arrazoia.

Plaza berriak sortzeko proposamena egin aurretik, dauden baliabideen erabateko erabilpena lortzeari eman beharko litzaioke lehentasuna. Horretarako, dirulaguntza-politika bat abiarazi beharko litzateke, hala balegokio, familien dirusarreraren arabera baremoa ezarri, eta, halaber, biztanleriari bete gabeko plazak daudela eta zerbitzu horretaz baliatzeko eskaintzen diren laguntzak jakinarazi eta, norberaren ikastetxean jantokirik ez badago, garraio-arazoak eta delako zerbitzuaz baliatzeko kontzertazio-mailakoak inplikaturik dauden aldean artean konpondu ondoren, udalerriko beste ikastetxe bateko jantoki zerbitzua erabiltzeko erraztasunak emanez.

Baserrialdea	5	—	—	Erdikoa	Aurreko proposamenean sartua
ERRENTERIA	423	92	21,7	Erdi behekoa	

10.000tik 20.000ra BITARTEKO BIZTANLE-KOPURUA DUTEN UDALERRIAK

UDALERRIAK	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	STATUSA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
Andoain	163	53	32,5	Erdikoa	Batezbesteko estalduratik hurbil dago
Azkoitia	91	—	—	Erdikoa	25 plaza
Azpeitia	149	40	26,8	Erdikoa	16 plaza
Beasain	188	64	34	Erdikoa	Batezbesteko estalduratik hurbil dago
Bergara	219	50	22,8	Erdikoa	30 plaza
Elgoibar	104	60	57,7	Erdikoa	Batezbesteko estalduratik gora dago
Hernani	314	81	25,8	Erdikoa	36 plaza
Hondarribia	230	132	57,4	Erdikoa	Batezbesteko estalduratik gora dago
Lasarte-Oria	191	—	—	Erdi behekoa	50 plaza
Oñati	180	—	—	Erdikoa	50 plaza
Pasaia	207	195	94,2	Erdi behekoa	Batezbesteko estalduratik gora dago
Tolosa	290	74	25,5	Erdikoa	34 plaza
Zarautz	338	98	29	Erdikoa	28 plaza
Zumarraga	125	—	—	Erdikoa	35 plaza

GIPUZKOAKO ESKUALDEAK (10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak baino ez)

ESKUALDEAK	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
Deba Garaia	174	34	19,5	31 plaza
Deba Behea	189	—	—	50 plaza
Donostialdea	412	149	36,2	Batezbesteko estalduratik hurbil dago
Goiherri	462	117	25,3	55 plaza
Tolosaldea	323	50	15,5	70 plaza
Urola-Kosta	308	175	56,8	Batezbesteko estalduratik gora dago

GIPUZKOAKO MANKOMUNITATEAK

MANKOMUNITATEAK	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
Deba Garaia	959	159	16,6	198 plaza
Deba Behea	655	60	9,2	184 plaza
Urola-Garai	270	—	—	230 plaza
Zarautz	608	273	44,9	Batezbesteko estalduratik gora dago

5.3.2

ESKOLA JANTOKIAK

	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA
GIPUZKOA	51.618	23.093	44,7
E.A.E.	150.536	77.230	51,3

20.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGO DITUZTEN UDALERRIAK

— ARRASATE

AUZOA	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	STATUSA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
Erdialdea	729	370	50,8	Erdikoa	200 bat jantoki-plaza ezartzea, zerbitzu hau ez duten udalerriko ikastetxeetara hedatuz. Ahal den neurrian, Musakola, Santa Teresa eta Olan auzoetan plaza-eskaintza bultzatzea
Musakola	143	—	—	Erdi behekoa	
Santa Teresa	262	—	—	Behekoa	
San Andres	284	143	50,4	Erdi behekoa	
Uribarri-Urbe	593	320	54,0	Erdi behekoa	
Olan	270	—	—	Erdikoa	
ARRASATE	2.281	833	36,5	Erdikoa	

— DONOSTIA

AUZOA	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	STATUSA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
Alde Zaharra	409	133	32,5	Erdikoa	Alde horretako eskaintzaz estal- tzea
Erdialdea	572	180	31,5	Erdi goikoa	Alde horretako eskaintzaz estal- tzea
Amara-Zabalgunea	3.050	960	31,5	Erdikoa	Alde horretako eskaintzaz estal- tzea
Loiola-Martutene	732	735	100,4	Erdi behekoa	Batezbesteko estalduratik gora dago
Gros	1.753	—	—	Erdikoa	Alde horretako eskaintzaz estal- tzea
Ulia	350	666	190,3	Erdikoa	Batezbesteko estalduratik gora dago
Egia	1.005	817	81,3	Erdi behekoa	Batezbesteko estalduratik gora dago
Intxaurrondo	1.477	1.481	100,3	Erdi behekoa	Batezbesteko estalduratik gora dago
Herrera-Altza- Bidebieta	2.861	938	32,8	Erdi behekoa	Alde horretako eskaintzaz estal- tzea
Antiguo-Aiete- Donostia Hegoaldea eta Mendebaldea	3.163	4.665	147,5	Erdikoa	Batezbesteko estalduratik gora dago
DONOSTIA	15.372	10.505	68,3	Erdikoa	

— EIBAR

AUZOA	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	STATUSA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
1. aldea	89	3	3,4	Behekoa	3 eta 13 urte bitartekoentzako eskolako jantoki-plazen eskain- tza sortzea, zerbitzu hau hala- korik ez duten udalerriko ikas- tetxeetara hedatuz
2. aldea	799	678	84,9	Erdikoa	
3. aldea	124	90	72,6	Behekoa	
4. aldea	542	420	77,5	Erdikoa	
5. aldea	564	—	—	Erdikoa	
EIBAR	2.118	1.191	56,2	Erdikoa	

— IRUN

AUZOA	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	STATUSA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
Anaka-Jaizubia- Urdanibia	476	350	73,5	Erdikoa	500 bat jantoki-plaza ezartzea, zerbitzu hau ez duten udalerriko ikastetxeetara hedatuz. Ahal den neurrian, San Miguel-El Pinar-Anzaran, Behobia Pauso-Azken Portu, Larreaundi, Pio XII-Luis Mariano eta Colon Pasialekua-Mendibil auzoetan plaza-eskaintza bultzatzea
San Miguel-El Pinar- Anzaran	628	—	—	Erdikoa	
Ventas	243	200	82,3	Erdi behekoa	
Behobia Pauso- Azken Portu	441	—	—	Erdikoa	
Diseminados Behobia- Bidasoa Baserrialdea	43	30	69,8	Erdikoa	
Uranzu-Arbes	445	172	38,7	Erdi behekoa	
Beraun-Santiago- Dunboa	455	125	27,5	Erdikoa	
Meaka Baserrialdea	94	—	—	Erdikoa	
Lapice Baserrialdea	53	—	—	Erdikoa	
Belaskoenea-Arretxe- Alhondiga	239	80	33,5	Erdi behekoa	
Lapice	128	60	46,9	Erdi behekoa	
Larreaundi	215	—	—	Erdi behekoa	
Alde Zaharra	236	305	129,2	Erdikoa	
Pio XII-Luis Mariano	256	—	—	Erdi behekoa	
Colón Pasialekua	177	—	—	Erdi goikoa	
Iparralde-Mendibil					
IRUN	4.129	1.322	32,0	Erdikoa	

— ERREENTERIA

AUZOA	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	STATUSA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
Erdialdea	499	50	10	Erdi behekoa	500 bat jantoki-plaza ezartzea, zerbitzu hau ez duten udalerriko ikastetxeetara hedatuz. Ahal den neurrian, Erdialdea, Galtzaraborda, Iztieta, Gabierrota-Lartzabal auzoetan plaza-eskaintza bultzatzea
Galtzaraborda	253	35	13,8	Erdi behekoa	
Beraun	808	186	23	Erdi behekoa	
Iztieta	283	—	—	Behekoa	
Alaberga-Versalles	203	155	76,4	Erdi behekoa	
Gaztaño-Agustinas	224	142	63,4	Behekoa	
Capuchinos	348	350	100,6	Behekoa	
Pontika	185	40	21,6	Erdi behekoa	
Gabierrota-Lartzabal	136	—	—	Erdi behekoa	
Olibet-Casas Nuevas	163	90	55,2	Erdi behekoa	
Baserrialdea	22	—	—	Erdikoa	
ERREENTERIA	3.124	1.048	33,5	Erdi behekoa	

10.000tik 20.000ra BITARTEKO BIZTANLE- -KOPURUA DUTEN UDALERRIAK

UDALERRIAK	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	STATUSA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
Andoain	988	215	21,8	Erdikoa	290 plaza
Azkoitia	456	100	21,9	Erdikoa	134 plaza
Azpeitia	850	164	19,3	Erdikoa	272 plaza
Beasain	844	230	27,3	Erdikoa	203 plaza
Bergara	1.187	362	30,5	Erdikoa	247 plaza
Elgoibar	650	280	43,1	Erdikoa	53 plaza
Hernani	1.426	387	27,1	Erdikoa	344 plaza
Hondarribia	1.259	512	40,7	Erdikoa	134 plaza
Lasarte-Oria	1.364	150	11,0	Erdi behekoa	550 plaza
Oñati	841	369	43,9	Erdikoa	62 plaza
Pasaia	1.068	362	33,9	Erdi behekoa	186 plaza
Tolosa	1.503	1.075	71,5	Erdikoa	Batezbesteko estalduratik gora dago
Zarautz	1.421	470	33,1	Erdikoa	259 plaza
Zumarraga	642	100	15,6	Erdikoa	229 plaza

GIPUZKOAKO ESKUALDEAK (10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrriak baino ez)

ESKUALDEAK	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
Deba Garaia	1.185	785	66,2	Batezbesteko estalduratik gora dago
Deba Behea	989	505	51,1	Batezbesteko estaldurara heltzen da
Donostialdea	2.099	855	40,7	222 plaza
Goiherri	2.474	562	22,7	700 plaza
Tolosaldea	1.558	415	26,6	380 plaza
Urola-Kosta	1.790	226	12,6	690 plaza

GIPUZKOAKO MANKOMUNITATEAK

MANKOMUNITATEAK	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	PLAZA BERRIAK SORTZEKO PROPOSAMENA
Deba Garaia	5.494	2.349	42,8	469 plaza
Deba Behea	3.813	2.056	53,9	Batezbesteko estalduratik gora dago
Urola-Garai	1.474	234	15,9	522 plaza
Zarautz	2.984	630	21,1	900 plaza

ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

5.3.3

	AHALEZKO ESKARIA	LAGUNDUTAKO ESKARIA	ESTALDURA
GIPUZKOA	85.989	2.552	3,0
E.A.E.	261.160	7.140	2,7

20.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGO DITUZTEN UDALERRIAK

UDALERRIAK	AHALEZKO ESKARIAK	LAGUNDUTAKO ESKARIA	ESTALDURA	KASU BERRIETARAKO PROPOSAMENA
Arrasate	2.779	38	1,4	Epe laburrera 37 kasu gehiagori laguntzea proposatzen da. Epe ertainera 101 kasu gehiagori
Donostia	26.009	930	3,6	Epe ertainera 370 kasu
Eibar	4.836	91	1,9	Epe laburrera 40 kasu. Epe ertainera 151 kasu
Irun	6.381	164	2,6	Epe ertainera 155 kasu
Errenteria	4.278	99	2,3	Epe laburrera 17 kasu. Epe ertainera 115 kasu berri

10.000tik 20.000ra BITARTEKO BIZTANLE- -KOPURUA DUTEN UDALERRIAK

UDALERRIAK	AHALEZKO ESKARIA	LAGUNDUTAKO ESKARIA	ESTALDURA	KASU BERRIETARAKO PROPOSAMENA
Andoain	1.431	32	2,2	Epe ertainera 40 kasu
Azkoitia	1.407	68	4,8	Epe laburrerako aurrikusitako estalduratik gora eta epe ertainerako aurrikusitakotik hurbil dago
Azpeitia	1.578	37	2,3	Epe ertainera 42 kasu
Beasain	1.310	36	2,7	Epe ertainera 30 kasu
Bergara	2.026	58	2,9	Epe ertainera 43 kasu
Elgoibar	1.459	24	1,6	Epe laburrera 15 kasu. Epe ertainera 49
Hernani	2.081	35	1,7	Epe laburrera 21 kasu. Epe ertainera 69
Hondarribia	1.523	31	2	Epe laburrera 10 kasu. Epe ertainera 45
Lasarte-Oria	1.306	50	3,8	Epe ertainera 15 kasu
Oñati	1.448	36	2,5	Epe ertainera 36 kasu
Pasaia	2.477	89	3,6	Epe ertainera 35 kasu
Tolosa	2.845	112	3,9	Epe ertainera 30 kasu
Zarautz	2.028	41	2,0	Epe laburrera 14 kasu. Epe ertainera 60
Zumarraga	1.186	40	3,4	Epe ertainera 19 kasu

GIPUZKOAKO ESKUALDEAK (10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak baino ez)

ESKUALDEAK	AHALEZKO ESKARIA	LAGUNDUTAKO ESKARIA	ESTALDURA	KASU BERRIETARAKO PROPOSAMENA
Deba Garaia	1.576	49	3,1	Epe ertainera 30 kasu gehiagori laguntzea proposatzen da
Deba Behea	2.424	48	2,0	Epe laburrera 17 kasu. Epe ertainera 73
Donostialdea	2.481	69	2,8	Epe ertainera 55 kasu
Goiherri	5.460	187	3,4	Epe ertainera 86 kasu
Tolosaldea	3.126	110	3,5	Epe ertainera 46 kasu
Urola-Kosta	2.681	78	2,9	Epe ertainera 56 kasu

GIPUZKOAKO MANKOMUNITATEAK

MANKOMUNITATEAK	AHALEZKO ESKARIA	LAGUNDUTAKO ESKARIA	ESTALDURA	KASU BERRIETARAKO PROPOSAMENA
Deba Garaia	7.829	181	2,3	Epe laburrera 30 kasu gehiagori laguntzea proposatzen da eta epe ertainera 210 kasu
Deba Behea	9.762	163	1,7	Epe laburrera 101 kasu. Epe ertainera 325
Urola-Garai	3.001	94	3,1	Epe ertainera 56 kasu
Zarautz	3.979	96	2,4	Epe laburrera 11 kasu eta epe ertainera 103 kasu

ADINEKOENTZAKO EGOTETXEAK

5.3.4

	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA
GIPUZKOA	859.891	2.817	3,3
E.A.E.	261.160	8.767	3,4

20.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGO DITUZTEN UDALERRIAK

UDALERRIAK	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	PLAZA BERRIETARAKO PROPOSAMENA
Arrasate	2.779	98	3,5	Epe ertainera 41 plaza berri sortzea proposatzen da
Donostia	26.009	544	2,1	Epe laburrera 340 plaza. Epe ertainera 756
Eibar	4.836	368	7,6	Batezbesteko estalduratik gora dago
Irun	6.381	134	2,1	Epe laburrera 83 plaza. Epe ertainera 185
Errenteria	4.278	130	3,0	Epe laburrera 15 plaza. Epe ertainera 84

10.000tik 20.000ra BITARTEKO BIZTANLE-KOPURUA DUTEN UDALERRIAK

UDALERRIAK	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	PLAZA BERRIETARAKO PROPOSAMENA
Andoain	1.431	60	4,2	Epe ertainera 12 plaza berri sortzea proposatzen da
Azkoitia	1.407	50	3,6	Epe ertainera 20 plaza
Azpeitia	1.578	48	3,0	Epe ertainera 31 plaza
Beasain	1.310	54	4,1	Epe ertainera 12 plaza
Bergara	2.026	115	5,7	Epe laburrerako eta ertainerako aurrikusitako estalduratik gora dago
Elgoibar	1.459	53	3,6	Epe ertainera 20 plaza
Hernani	2.081	105	5,0	Epe laburrerako aurrikusitako estalduratik gora dago eta epe ertainerako aurrikusitakora heltzen da
Hondarribia	1.523	72	4,7	Epe laburrerako aurrikusitako estalduratik gora eta epe ertainerako aurrikusitakotik hurbil dago
Lasarte-Oria	1.306	4	0,3	Epe laburrera 40 plaza eta epe ertainera 61
Oñati	1.448	72	5,0	Epe laburrerako aurrikusitako estalduratik gora dago eta epe ertainerako aurrikusitakora heltzen da
Pasaia	2.477	40	1,6	Epe laburrera 44 plaza eta epe ertainera 84
Tolosa	2.845	247	8,7	Epe laburrerako eta ertainerako aurrikusitako estalduratik gora dago
Zarautz	2.028	63	3,1	Epe ertainera 38 plaza
Zumarraga	1.186	52	4,4	Epe ertainera 7 plaza

GIPUZKOAKO ESKUALDEAK (10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrriak baino ez)

ESKUALDEAK	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	PLAZA BERRIETARAKO PROPOSAMENA
Deba Garaia	1.576	63	4,0	Epe ertainera 16 plaza sortzea gomendatzen da
Deba Behea	2.424	76	3,1	Epe ertainera 45 plaza
Donostialdea	2.481	53	2,1	Epe laburrera 31 plaza, epe ertainera 71
Goiherri	5.460	205	3,8	Epe ertainera 68 plaza
Tolosaldea	3.126	36	1,2	Epe laburrera 70 plaza, epe ertainera 120
Urola-Kosta	2.681	75	2,8	Epe laburrera 16 plaza, epe ertainera 59 plaza

GIPUZKOAKO MANKOMUNITATEAK

MANKOMUNITATEAK	AHALEZKO ESKARIA	PLAZAK	ESTALDURA	PLAZA BERRIETARAKO PROPOSAMENA
Deba Garaia	7.829	348	4,4	Epe ertainera 43 plaza sortzea gomendatzen da
Deba Behea	9.762	497	5,1	Epe labur eta ertainerako aurrikusitako estalduratik gora dago
Urola-Garai	3.001	98	3,3	Epe ertainera 52 plaza
Zarautz	3.979	109	2,7	Epe laburrera 26 plaza, epe ertainera 90 plaza

6

PETER MOSS-EN HITZALDIA

**“ENPLEGUAREN
ETA FAMILI
ERANTZUKIZUNEN
BATERAGARRITASUNA”**

SARRERA

6.1

Nire hitzaldiaren gaia enpleguaren eta haurrarenganako arduraren arteko bateragarritasuna edo kontziliazioa da. Gai hau, ordea, arazo zabalago baten zati bat dela esan behar da aurrena, hau da, nola uztar daiteke enplegua gainontzeko erantzukizun eta harreman guztiekin, haurrenganakoekin ez ezik, nagusienganakoekin ere. Irtenbideren bat aurkitzekotan, “bizitza-ziklo”aren ikuspegi jakin batetik abiatu aurkituko da, alegia, gizonezkoek eta emakumezkoek famili erantzukizunak dituztela eta erantzukizunok pertsona helduen bizitzan zehar enpleguarekin bateragarriak izan behar dutela onartzen duen ikuspegitik alegia.

Lan honetan, beraz, zergatik den beharrezkoa bateragarritasun hori azaldu nahi dut, berorren garrantzi ekonomikoa eta soziala frogatuz. Ondoren, Europar Batasunean nabari den gai honetikiko interes gero eta biziagoa aipatu eta koordinatzen dudana Sarearen zenbait ezaugarri azalduko ditut. Horrek, jakina, Europar Batasuneko estatuetan dagoeneko sartu diren bateragarritasunaren aldeko neurriak aipatzera eramango gaitu: Haurrarenganako Arduraz Europako Kontseiluak emandako Gomendioez baliatuko naiz azalpen honetarako esparrua mugatzeko. Azkenik, bateragarritasuna bultzatzeko ekintzaren aldeko argudio ekonomikoak azalduko ditut luzexegoko. Lehenengo eta behin, testuinguru laborala aipatu nahiko nuke, bateragarritasuna bultzatzearen aldeko argudioa areago finkatzeko.

TESTUINGURU LABORALA

6.2

Seme-alabak dituzten emakumezkoen enplegu tasaren hazkundea Europar Batasun osoan nabari da. 1985etik 1991era bitartean, esate baterako, 10 urtetik beherako seme edo alabaren bat duten emakumezkoen enplegu tasak % 41etik % 50era hazi dira. Europar Batasuneko estaturen artean desberdintasun nabarmenak daude oraingoz, noski. Espainian, hain zuzen, Batasuneko amen enplegu tasarik txikienetakoa ageri da, tasarik handienak dituzten Dinamarkakoaren eta Portugalakoaren erdira ere iristen ez dena. Hala eta guztiz ere, zifra hauek goranzko joeraz ageri zaizkigu herrialde guztietan.

Amen enplegua, dena den, testuinguruaren erdia baino ez da —edo, hain zuzen ere, erdia baino gutxiago. Bateragarritasuna gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, amak aitei gehitzen ari zaizkielako lan merkatuan eta aiten tasak oso handiak dira, % 92koa gutxi gora-behera Europar Batasunean 1991ean. Aitarik gehienek, lanean jarduteaz gainera, lanaldi luzeak izan ohi dituzte amen aldean. Enplegaturiko amek enplegutarikoa aitek baino hamar bider gehiagotan dihardute lanaldi partzialeko lanetan eta, lanaldi osoan dihardutenen arteko konparazioa eginik ere, aitek lanean asteko 40-49 bat ordu eman ohi duten bitartean, amek 30-39 bat besterik ez.

Eta aitek bereziki aipatzen ditut —eta hala egingo dut gerora ere— zeren, nire ustez, eta Europar Batasunak ere iritzi berekoa da, enpleguaren eta famili erantzukizunen arteko bateragarritasuna edo kontziliazioa ez baita emakumezkoari soilik dagokion arazoa. Bateragarritasuna, halaber, ez da beharrezkoa amen enplegua areagotu delako soilik. Aitzitik, haurrarenganako ardura aitei ere

badagokie eta, gaur egun, aita eta amarik gehienak enplegaturik daudelako hartzen ari da gero eta garrantzi handiagoa kontziliazioa edo bateragarritasuna. Nolanahi ere, gizonezkoek, dirua irabaztea salbu, famili erantzukizun mugatuak dituztelako ustean oinarrituriko enplegu-irizpideak nagusitu direnetik, gero eta zailagoa gertatzen ari da bateragarritasuna. Arlo honetan ageri zaigun erronkarik latzena, agian, langile guztien famili erantzukizun iraunkorrak aintzat hartzen dituzten emakume zein gizonentzako enplegu-eredu berriak sortzearena izan daiteke.

Hortaz, bateragarritasuna gai garrantzitsua da, hala gizonezkoentzat, nola emakumezkoentzat, eta lortuko bada, ezinbestekoa da gizonezkoen enplegu egituretan nahiz haurrarenaganako arduraren dagokien partaidetzan aldaketak nabarmenak izatea. Europan 25etik 49ra bitarteko adina duten gizon zein emakumeengana biltzen ari da enplegurik gehiena. Europako Batzordeak berrikitan adiezari duenez, 1960tik 1991era bitartean, Europar Batasunean adin horretako indar laborala % 51etik % 62ra gehitu zen eta prozesu honek datorren mendean ere iraungo omen du. Hauxe da, hain zuzen, 25 urtetik 49 urtera bitarteko adina duten gizonezkoen enplegu tasa handiak eta emakumeen enpleguaren gero eta gehikuntza nabarmenagoak ekarritako ondorioa. Aldi berean, gazteen enplegua eta nagusia gutxitu egiten da, hirugarren mailako hezkuntzan, langabezian eta erretiro aurreratuetan nabari den gehikuntzagatik.

25 urtetik 49 urtera bitarteko adinarekin batera gertatzen da haurren hezkuntzaren garairik intentsiboena ere eta, horrenbestez, paradoxa nabarmen baten aurrean gaude, alegia, biztanle batzuentzako lan-bolumenaren hazkundeak aztertzaile britainiar batek “lan gehiegi duen familia” deitu duena ekarri duela. Eta hau langabeziaren zenbatekoak gehitzen ari diren une berean gertatzen ari da. Sexuen arteko berdintasuna eta ongizate sozial eta ekonomikoa bultzatzeko, lan zama —bai ordaindutako enpleguan eta bai erantzukizunetan ere— nola birbanatu behar den mugatzearena izan daiteke, agian, toki, nazio eta Europa mailan ageri dakigukeen erronkarik handiena. Esan nahi baita, lana berdintsuago eta egokiago banatu behar dela gizonezkoen eta emakumezkoen artean, enplegatuen eta enplegurik gabekoen artean eta bizitza-zikloan zehar.

ZERGATIK DA BEHARREZKOA BATERAGARRITASUNA EDO KONTZILIAZIOA?

6.3

Enpleguaren eta famili erantzukizunen arteko bateragarritasunak garrantzi handia du hainbat helburu sozial eta ekonomiko lortzeko. Denak dira garrantzitsuak, baina, koordinatzen dutan Sarea Europar Batasuneko Aukera Berdintasunaren aldeko Programaren osagaia denez gero, sexuen arteko berdintasunetik hasiko naiz —hau da, lan merkatuan gizon eta emakumeentzako aukera berdintasuna bultzatu beharraz mintzatu naiz aurrena—. Lan merkatuan umeak dituzten emakumeen presentzia gero eta nabarmenagoa bada ere, umeok zaindu beharrak egoera okerragoan jartzen ditu emakume hauek. Ezagarri hauek dituzten emakumeen enplegu tasak nahiko txikiak dira seme-alabarik gabeko emakumeen tasen nahiz seme-alabak dituzten edo ez dituzten gizonezkoenen aldean. Lanaldi partzialeko tasak, ordea, handiagoak dira eta enplegu aukerak, lanean ari diren emakumeentzat ere, urriak.

Ez dut esan nahi umeak eta berauenganako zaintza arazo bat direnik. Arazoa, aitzitik, haurrarenaganako ardura antolatzearen erantzukizun bat direnik. Arazoa, aitzitik, haurrarenaganako ardura antolatzearen erantzukizun bat direnik. Arazoa, aitzitik, haurrarenaganako ardura antolatzearen erantzukizun bat direnik.

tziorik gabekoa emakumezkoen bizkar jartzen baita euren enpleguaren eta irabazien kaltetan. Enplegua eta haurraren ganako ardura desabantaila ekonomikorik sortu barik eta bai seme-ala-bentzat eta bai gurasoentzat ere gogoko gertatzeko moduan bateratzeko aukera izango dugun egoera batera heltzea izan behar da gure helburua. XX. mendeko azken hamarkadan egingarria eta bidezkoa dirudi helburu honek.

Kontziliazio edo bateragarritasunaren bidez lor daitekeen bigarren helburua, berriz, haurren, amen eta aiten ongizatea da. Eta horrenbestez, hirugarren helburura iristen gara, hau da, famili bizitza eta famili harremanak bultzatu eta sendotzea. Bateragarritasuna, azkenik, oso mese-degarria gerta dakioke ekonomiari, bai eta ugazaberiaren beharrei ere. Gaur egun, giza-baliabide askotxo alferrik galtzen ditugu emakumezkoen ahalmena erabat ez erabiltzeagatik, eta bitartean, enpleguaren eta famili erantzukizunen arteko bateragarritasunik ezak sortarazitako tentsioak kaltegarriak gerta daitezke gizonezkoen nahiz emakumezkoen lan emankortasunerako.

Bateragarritasunak heldu behar dien helburu sozial eta ekonomiko guztiak mugatzea ere garrantzitsua da, bateragarritasun-politikari dagozkion proposamenak ebaluatzean batez ere. Proposamen orok helburu hauek guztiak bultzatzen dituela —edo ez dituela eragozten gutxienik— ziurtatu beharra daukagu. Dimentsio sozial eta ekonomikoak eta haurren, gurasoen, familien, ugazaben eta, oro har, gizartearen interesak aintzat hartzen dituen bateragarritasunaren ikuspegi orokor bati eusteko ahaleginak egin beharra daukagu.

BATERAGARRITASUNA DELA ETA EUROPAR BATASUNEAN DAGOEN INTERES GERO ETA NABARMENAGOA

6.4

Europar Batasunean gero eta nabarmenagoa da epe luzerako bateragarritasunarekiko interesa. Epe luzera lan merkatuan emakumeekiko eta gizonekiko tratua berdina lortzeko konpromezuan datza interes horren arrazoi nagusia. Batasunaren itunetan agertzen den konpromezu honek aukera berdintasunaren arloan legezeko edo bestelako ekinbideak urratzeko eskumenak ematen dizkio Batasunari. Ekinbideon azalpenari ekin aurretik, ordea, Batasunak egiterik ez daukana aipatu behar da, izan ere, ez baitu eskumenik haurren ongizatea hobetzeko ekinbideetan. Haurrek, une honetan, ez dute toki aintzatetsirik Europar Batasunean. Bazterketa hau oso nabarmenki ageri da Europar Batzordeak iragan urtearen amaieran argitaratu zuen Gizarte Politikari buruzko Liburu Berdean. Agiri garrantzitsu honetan ez da haurrei buruzko aipamenik agertzen.

Ondorioak funtsezkoak dira eta justifikaturik dago berorietaz luzexego mintzatzea. Oraingoan, dena den, zera esango dut, haurren beharrian eta eskubideak nagusienak bezalaxe aintzatzat hartu behar direla uste badugu, Batasunaren perspektiban haurrak ez agertzeak arazoak sortzen dituela enpleguaren eta haurraren ganako arduraren bateragarritasuna kontutan hartzerakoan. Hau da, bateragarritasun politika orekatua izango bada, hala sexuen arteko berdintasunean, nola haurraren ganako politiketan oinarritu behar da.

Batasunean bateragarritasuna dela eta piztutak interesari berriro helduz, zenbait ekinbide jorratzen hasi direla esan behar da. Adibidez: Gurasoen Baimenari buruzko Zuzentarau baterako

proposamena, oraindik, behintzat, onartu gabeko zerbait; Haurrarenaganako Ardurari buruz Kontseiluak eginiko Gomendioa, geroago aipatuko dudana; Egiturazko Fondoen dirulaguntza lan egiten duten gurasoen haurrentzako zerbitzuak garatzeko; Haurrarenaganako Ardurari buruzko Sare baten eraketa eta Enplegua eta Famili Erantzukizunak bateratu ahal izateko beste zenbait Neurri; Batasuneko Estatuen arteko lankidetzak eta trukaketa bultzatzeko baliabidea.

Sarea 1986an eratu zen Aukera Berdintasunerako Bigarren Programaren barruan eta iragan urtearen amaierara arte jardun du Aukera Berdintasunerako Hirugarren Programaren barruan. Estatu bakoitzeko aditu bana (Espainiaren ordezkaria Irene Balaguer da) eta koordinatzaile bat dauka Sarean. Eta Gizarte Politika eta Enpleguak koordinatzeaz arduratzen den 5. Zuzendaritza Orokorreko Aukera Berdintasunaren Unitateari informatzen dio.

Aukera Berdintasunerako Hirugarren Programan azaltzen den moduan, gertakariak aztertu, hautabide politikoak ebaluatu, informazioa bildu eta zabaltzeko eta haurrarenaganako ardura zerbitzuetako kalitatea definitzeko irizpideak ezartzean datza Sarearen eginkizun nagusia. Bateragarritasun arloari dagokionez, enpleguaren eta haur txikienganako arduraren, hau da, 10 eta 11 urteko umeenganako arretaren arteko bateragarritasunari lotu gatzazkio oraingoz. Adin honetako umeentzat, dena den, ikusmolde zabalagoa aukeratu dugu, alegia, haurrentzako zerbitzuak, gurasoen baimenatarako sistemak eta gizonezkoek haurren zaintzan eta hezieran gero eta partehartze handiagoa izateko neurriak kontutan hartzen dituen ikusmoldea. Horretarako, argitalpen mordo bat eta gai hauei buruzko lan programa mardula ditugu.

KONTSEILUAREN GOMENDIOA HAURRARENGANAKO ARDURAZ

6.5

Bateragarritasunari dagokionez, bereziki aipatu nahi ditut Batasunaren ekinbide berriak —Ministro Kontseiluak 1992ko martxoan onartutako Haurrarenaganako Ardurari buruzko Gomendioa alegia. Gomendioaren testua Irene Balaguerren bitartez lor daiteke Sareari buruzko 1992. urteko Txostenean.

Kontseiluaren Gomendioa, Zuzentaraua ez bezala, ez da lotaraztekoa legearen aldetik (bai Europako Parlamentuak eta bai Sareak gomendatu dute Haurrarenaganako Ardurari buruzko Zuzentarau bat egitea). Gomendioaren bidez, hala ere, Batasuneko Estatuak bere egiten dituzten printzipioak eta helburuak ezartzen dira. Gomendio hau, dena den, kualifikatuegia edo zalantzarik egia da hainbat ataletan; 12 Gobernuren adostasuna lortu behar duen ondorioz, jakina. Hala eta guztiz ere, Europar Batasunean bateragarritasunari buruzko politika bat garatzeko prozesuan emandako aurrerapauso garrantzitsua izan da —eta prozesu hitza azpimarratu nahi dut, oso garrantzitsua delako bateragarritasunari buruzko politika bilakatzen ari den zerbait bezala hartzea. Hurrengo aurrerapausoa 1995ean emango da, Gobernuak, orduan, Gomendioa gauzatzeko eman dituzten aurrerapausoei buruzko argibideak eman beharko baitizkiote Batzordeari.

Gomendioan, halaber, printzipio eta helburu garrantzitsu batzuk agertzen dira eta Europar Batasuneko bateragarritasuna aztertzeko esparru erabilgarria eskaintzen du. Enplegua eta haurren zaintzak sortarazitako famili erantzukizunak bateratu ahal izateko gauza izango badira, emakumezkoak eta gizonezkoak behar dituzten prestakuntzari dagozkion lau arlotako neurriak behar

direla proposatzen du: haurraz arduratzeko zerbitzuak; gurasoentzako baimenak; lantokia gurasoen beharrianen arabera ingurune bilakatzea eta gizonezkoak haurren heziketan eta zaintzan gero eta partaidetza handiagoa izatera bultzatzea. Esparru hau erabiliko dut, laburki eta azaletik bada ere, Europar Batasuneko egungo egoera aztertzeko.

Haurraz arduratzeko zerbitzuetatik hasita, ez naizela kalitate-gaiei buruzko eztabaidan sartuko esan nahi dut, bateragarritasunerako politika ororen funtsezko osagaia dela onartu arren; Sareak ume txikiez arduratzeko zerbitzuetako kalitatea lantzeko programa garrantzitsu bat du, Irene Balaguerren eskuhartzea oso garrantzitsua da arlo horretan. Europar Batasunean, oro har, aurre-eskolako heziketa unibertsalerako joera nabari da, umeak 3 urte dituenetik derrigorrezko eskola-adinera heldu arte dirauen heziketa alegia; helburua hau dagoeneko lortu da zenbait herrialdetan (Belgikan, Frantzia eta Italian, esate baterako), beste batzutan konprometzu politikoa da (Danimarkan, Alemanian eta Espainian, adibidez).

Herrialderik gehienetan, dena den, finantzaketa publiko mugatua duten hiru urtetik beherako umeentzako zerbitzuak eta eskola-orduetatik kanpoko zaintza zerbitzuak baino ez daude. Zerbitzu hauen estaldura % 5era ere ez da heltzen batzutan. Gauzak honela, gurasoek baliabide pribatueta jo behar izaten dute, gehienetan ahaideengana eta zaintzaile-talde garrantzitsua baina nahikoa baztertuta osatzen duten amonengana batik bat, bai eta ordaindu beharreko zerbitzu pribatueta ere. Laguntza publikoa duten baliabiderik ez izateak ondorio kaltegarriak dakartzkie haurrei eta gurasoei eta, bereziki, amei.

Salbuespenik aipagarrienak Belgika, Frantzia eta Danimarka dira: Belgikan eta Frantzia 3 urtetik beherako haurren % 20rentzako zaintza eskaintzen da. Danimarkan, berriz, aski hedatuak diren zerbitzu publikoak daude, 3 urtetik beherako % 50i eta 3tik 6ra bitartekoen ia % 75i zerbitzuak ematen dizkienak eta 7 urtetik 9 urtera bitarteko umeen ia % 50 ere eskola-orduetatik kanpo zaintzen dituztenak. Zerbitzu hauek, gainera, zabalitzen ari dira eta ihaz Gobernuak hartutako konprometza betetzen bada, 1996rako, diru publikoaz finantzatutako plazak eskainiko zaizkie 12 hilabetetik gorako ume guztiei.

Danimarkan, zerbitzuok zabaldu ahala, baimenatarako hornikuntzak ere eraldatu ditu. Aurten hasita, lehendik bazegoen 10 asteko esleipenaz gain, aita eta ama bakoitzak kontratatzailearekin ados jarri ondoren, sei hilabeteko bigarren baimenaz gozatzeko aukera izango du. Baimen hau partzialki ordaindua da, asteko 42.000 bat pezetaz; beste alde batetik, oinarritzko nazio-ordainketa hau toki-agintariek ordain dezakete Gobernuaren ordezkari eta, hasierako datuen arabera, badirudi hala gertatzen dela kasurik gehienetan. Baimen honen ondorioz, 12 hilabetetik beherako umeentzako zerbitzuekiko eskaria murriztu egingo dela espero da —horregatik hartu du Gobernuak 12 hilabetetik gorako umeekiko konprometza. Suedian ere antzeko zerbitzu gertatzen ari da, Gurasoentzako Baimen ordaindua luzatzen ari da eta, dagoeneko, 15 hilabetera heldu da eta, horren ondorioz, 12 urtetik beherako ume gutxi aurki daitezke haurtzaindegietan.

Gurasoentzako Baimenaren aldaketa eta Amatasunagatikoa eta Aitatasunagatikoa Baxak direla medio, Danimarka oso aurreraturik dago Batasuneko gainontzeko Estatuaren aldean, bigarren neurriari dagokionez, hau da, aitentzako eta amentzako baimen sistema. Lau eratako baxa edo baimen hartzen dira kontutan: Amatasunagatikoa Baxa, Aitatasunagatikoa Baxa, Gurasoentzako Baimena eta Famili Arrazoiengatikoa Baimena gaixorik dauden umei zaintzeko edo gurasoei dagozkien premiazko beste zenbait eginkizun burutzeko. Amatasunagatikoa Baxa ordaindua eskubide unibertsala da Batasuneko Estatu guztietan, Erresuma Batuan izan ezik, eta han ere aurten lortuko da Zuzentarau baten ondorioz.

Gurasoentzako Baimena Batasuneko bederatzi Estatutan sartu da, Luxenburg, Irlanda eta Erresuma Batua dira hornikuntza hau ez duten herrialdeak. Gainontzeko herrialde gehienetan, ordea, baimen hau ez da behar bezala garatu ordainketetan, malgutasunean eta eskubide honetaz guraso biak baliatzea bultzatuko luketen beste hainbat alderditan. Izan ere, ordaindu gabekoa den herrialdeetan, gurasoentzako baimenari heltzen dioten gizonezkoen kopurua oso urria da. Suedian, aitzitik, bai ordainketa-maila nabarmena eta bai gurasoen konpromenezko jarrerara sendoa daudela, gurasoen erdiak gutxi gora-behera heltzen dio halako baimen bati.

Aitatasunagatiko Baimena eta Famili Arrazoiengatiko Baimena ez dira horren arruntak: Dani-markan baino ez dago Aitatasunagatiko Baimen luze samar bat eta, gaixoturiko umeak zaintzeko baimen ordainduei dagokienez, Alemanian besterik ez dago baimen garrantzitsua.

Herrialderik gehienetan, beraz, bide luze samarra urratu behar da halako baimenak garatuz. Nolanahi ere, badira kasu interesgarriak ere. Iparraldeko herrialdeetan, esate baterako, Gurasoentzako Baimenaren erabilpena areagotzearen aldeko konpromezu nabarmena (bai eta aitei bereziki zuzendutako Gurasoentzako Baimenak sartzearen aldekoa ere) ageri da. Suedian eta Norvegian, Gurasoentzako Baimenatarako sistema oso malgua dago, gurasoei aukera ugari eskaintzen diena. Norvegian aurten ezarriko den “denborazko zenbaketa”ren sistema berrian gutxienez 100 aukera ezberdin daudela kalkulatu da. Belgikan eta Danimarkan ezarri duten Gurasoentzako Baimena, bestalde, langileek hainbat arrazoiengatik, prestakuntza eta heziketarik ere, baina beste arrazoi askorengatik ere bai, baimenak lortu ahal izateko lan esleipen zabalago batzuen barruan dago. Sistema hauek, baimenen “bizitza-zikloa” kontutan hartzen dutelarik, langileak bere lan bizitzan zehar nahi bezala goza dezakeen astialdiaren esleipenaren bitartez, lanaren birbanaketa koordinatzeko era berria iradokitzen digute. Beharrezkoa denean, haurrak edo nagusiak zaintzeko eta antzeko arrazoi jakinei dagozkien baimenatarako laguntza gehigarria eskain daiteke.

Sareak beti defendatu du aipatu berri ditudan lau eratako baimen hauek legezko eskubide bilakatu behar dutela. Edozein modutan ere, ez dago eskubide hauek hitzarmen orokorren bidez edo enpresa bati dagokion berariazko hitzarmenaren bitartez ez zabaltzeko arrazoirik. Horrez gainera, legezko eskubide bat paperean egundokoa gerta dakigukeen arren, eskubide horren erabilpena ingurune laboralaren eta menpe egongo da nolabait eta, batez ere, ugazaberiak eta lankideek eskubideok erabili nahi dituztenen alde edo aurka agertu izanaren menpe. Eta puntu honetara iritsiz gero, bateragarritasunaren aldeko hirugarren neurri-multzoaren aurrean gaude, hau da, lantokia langileen beharrianetara areago egokituriko ingurunea bilakatzea.

Lantoki ezberdinetan familien aldeko lan politikak hedatzen ari direla ematen du. Tamalez, ez daukagu famili erantzukizunetan langileei laguntzeko politika hauen estaldura edo izaerari buruzko Europa-mailako daturik. Erresuma Batuko egoerari buruzko azterketa oinarritzat harturik, halako politikak areagotu arren, langileen proportzio txiki bat baino ez dutela estaltzen eta enpresarik handienetan eta sektore publikoan garatzen direla ematen du. Baliteke, askotan, zuzendaritzak nahi adina emandakoak izatea ere. Hau ikusirik, familien aldeko neurriak ez direla langile guztien esku geratuko eta sindikatu indartsuetan afiliaturik daudelako edo lan merkatuko beste abantaila batzuez bañiatzen direlako goi-mailako babesa duten langileak batez ere onuratu direla soma genezake. Neurri hauek, berez, ugazaberiaren beharrianetara edo lan merkatuaren eraginei erantzuteko sartu ohi dira eta ez familien beharrianetara aurre egiteko.

Azkenik, gizonezkoak haurrenganako eginkizunetan eta heziketan parte hartzera bultzatzeko neurriak ditugu. Neurri hauen bitartez bi helburu lortu nahi dira, batetik, gizonezkoek beren seme-alabekin denbora gehiago emateko aukerak areagotzea eta, bestetik, gizonezkoen eta

emakumezkoen artean famili erantzukizunak berdintsuago banatzeko jarrera bultzatzea. Iparraldeko herrialdeetan izan ezik, neurri hauen aldeko laguntza oso eskasa izan da. Izan ere, herrialderik gehienetan ez da gizonezkoek zaintzaile izan behar dutenik onartzen edo eztabaibatzen eta seme-alabenganako ardura emakumezkoek batez ere dagokielako iritzia da nagusi. Hau esan ondoren, zenbait herrialdeetako ekinbide bereziak aipatu nahi ditut, gizonezkoentzako guraso-baimenaren aldekoak, gizonezkoek haur zerbitzuetan guraso eta langile bezala parte hartzeak eta komunikabideetako kontzientziazio kanpainak, alegia. Laster argitaratuko den Sa-rearen txosten batean halako adibide batzuk azaltzen dira eta, halaber, gizonezkoek haurren bizitzan parte hartzera bultzatzeko eta horretarako laguntzak emateko bideak aztertzen dira.

Laburbilduz, bateragarritasunerako neurriei dagokienez, Batasuneko Estatuaren artean desberdintasun nabarmenak daudela, baina, ezein herrialdeetan, Danimarkan izan ezik seguraski, ez dela aurrerapenik lortu lau arlo hauetan esan dezakegu. Beste alde batetik, azpian dauden gaiak ere ez dira aztertu Batasuneko Estatuaren, hau da, bateragarritasuna emakumezkoena ez izik gizonezkoen gaia dela; horrek gizonezkoen lan egiteko eran eta familiaren bizitzan parte hartze moduan aldaketa sakonak dakartzala; bateragarritasuna bizitza-zikloko gaia dela eta ez seme-alabak txikiak direnekoa bakarrik eta, azkenik, lanaren eta familiaren beharrezanetatik eratorritako lan zamak berrantolaketa bat eskatzen duela.

Kontzeptuzko gaiak aparte, etorkizunari begira, nola jokatu behar den erakusten diguten jarraibideak agertzen ari dira. Lehenbizi, aurrera egin behar dugu hainbat eremutan. Aipatu ditudan lau arloak —haurraz arduratzeko zerbitzua, baimen sistemak, lantokia eta gizonezko zaintzaileahertsiki elkarloturik daude. Denak dira beharrezkoak baina gainontzekoekin batera. Baimen sistemak, esate baterako, haurraz arduratzeko zerbitzuekiko eskariari eragingo diote; gizonezkoak baimenak eskatzera bultzatzeko neurri tinko eta iraunkorrekin loturik ez dauden baimen sistemak emakumeentzako desabantailak areagotzeko arriskua ekar dezakete; lan inguruneak ere eragin handia izango du baimen sistemen erabileran.

Argi dago, halaber, bateragarritasunari maila guztietan eta ingurune ezberdinetan ekin behar zaiola, bai nazio-mailan, lurralde-mailan zein toki-mailan, hitzarmen kolektiboen bitartez eta lantoki eta zerbitzu jakinetan. Ekinbide batek maila batean izan dezakeen arrakasta (Gurasoentzako Baimenentarako legezko hornikuntza adibidez) beste maila batzutan indarrean dauden politiken eta jokabideen menpe egon daiteke (delako lan ingurunearen menpe, esate baterako).

Neurrien arteko, mailen arteko eta erakunde arduradunen arteko elkarlotura iraunkor honek adostutako helburuen, printzipioen eta lehentasunen marko bat eskainiko duen “bateragarritasunerako politika” baten beharra iragartzen du; politika hori oinarritzat harturik garatu eta ezarri ahal izango baita helburuak eta berauek epealdi jakin batzutan lortzeko bideak zehaztuko dituen “bateragarritasunerako programa” bat.

Bateragarritasunerako programa eta politika gauzatuko badira, gainera, beharrezkoa da parte hartzen duten alde ezberdinen erantzukizunak zeintzuk diren jakitea. Zein da gobernu zentralen eta lurraldeetako eginkizuna? Zein lan hitzamenena? Zertan lagundu behar du kontratatzaile bakoitzak? Zertan toki-agintariek? Europako herrialde askotan, esate baterako, azken urteetan gero eta nabarmenagoa da “ugazaben aldetiko haurrarenaganako laguntza” delako kontzeptua, hau da, ugazaberiak langileen seme-alabentzako laguntza zerbitzuak eskaini edo bultzatzen dituzala. Europako zerbitzurik aurreratuenak dauzkan Danimarkan, bestalde, jokabide hau errefusatu eta zerga bidez finantzaturiko udal zerbitzuen alde agertu dira; Sarea ere haurrarenaganako laguntza zerbitzuetan ugazabek indibidualki parte hartzearen aurka dago. Zerbitzuon garapenak dagozkien erantzukizunen zehazketa eskatzen du. Era berean, baimen sistema eragingarria garatuko

bada, Estatuaren, gizarte estamentuen eta lantoki bakoitzaren erantzukizunak noraino heltzen diren zehaztu behar dira.

Azkenik, arduradun guztiek —Gobernua, gizarte estamentuak, erakunde pribatuak, etab.— bateragarritasunerako politika eta programez eztabaidatu, haiek garatu eta haien ezarpena berri-kusteko biltoki edo foroak behar ditugu. Foro hauek, halaber, eraginkorrak izan behar dute maila guztietan —nazio-, lurralde- eta toki-mailan.

ZEINTZUK DIRA EKINBIDE HAUEN ALDEKO ARRAZOI EKONOMIKOAK?

6.6

Enpleguaren eta famili erantzukizunen arteko bateragarritasunaren aldeko gizarte arrazoi garrantzitsuak daude. Lehenago ere aipatu den bezala, bateragarritasuna erabat garrantzitsua da familien eta familiakoen ongizaterako. Funtsezkoa da bizitza-kalitate ona lortzeko. Bateragarritasuna funtsezkoa da, halaber, gizarte justiziarako, bai haurren eskubideen aldetik eta bai sexuen arteko berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintza gisa.

Baina, horrez gain, bateragarritasunaren aldeko arrazoi ekonomikoak ere badaude. Hauetako batzuk aipatu ditut lehenago: lan merkatuan emakumeentzako aukera berdintasuna bultzatzeko ezinbestekoa den giza-baliabideen erabateko erabilpena lortu ezinari dagokiona esate baterako; gaur egun, emakumeen trebezien eta esperientziaren erabilpen urriari buruzko zifra nabarmenak dauzkagu, trebezia horiek eta emakumeen gaitasuna garatzeko biderik eza ere nabarmena da. Ahalezko indar honen galera argudi zabalago baten osagaia da, alegia, neurri apropos eta egokiak garatzeko ekinbideak hartzen ez direnetik, gizabanakoari, familiari, lanari eta gizarteari dagozkien gastu ekonomikoak eta sozialak sortarazten direla. Ekinbideok gastuak sortarazten dituzten, baina ezer ez egiteak ere bai. Gastu hauei buruzko zenbait kalkulu egin dira: Erresuma Batuan eginiko azterlan batek, adibidez, haurren zaintzaren banaketa ezberdina dela medio, emakumezkoek irabaziak izateari uko egiteak eta honen ondoriozko pentsio-murrizketak emakumezkoen bizi-sarreretan sortarazitako galera nabarmenak erakutsi ditu. Gizonezkoek, aitzitik, ez dute inolako gasturik sortarazten seme-alabak izatean. Oro har, oraindik ez dira enpleguaren eta famili erantzukizunen arteko bateragarritasunik ezak sortarazitako gastuak zehazki kalkulatu eta aztertu.

Ekinbideon aldeko argudio ekonomikoetan nabarmentzen diren bi elementu nagusi azaldu nahiko nituzke. Alde batetik, adin txikiko haurrarenaganako laguntza zerbitzuak, kalitate handiko zaintza eta heziketarekin, onuragarriak gerta dakizkieke umeei. Onura hauetako batzuk zerbitzuok erabiltzean lortzen dira: kalitatezko zerbitzuek umeen esperientziak joritu eta haien bizitzaren kalitatea hobetzen dute. Baina, epe luzera ere onuragarriak gertatzen direla ikusi da, haurrak derrigorrezko hezkuntzan hasten direnean eta geroago ere, eta onura hauek bereziki garrantzitsuak gerta daitezke desabantailak dituzten etxeetan. Honen erakusgarriak nabarmenena Estatu Batuetan eginiko azterketa batetik atera da, azterketa horretan aurre-eskolako hezkuntza progama on batean aritu ziren ume-taldea, familia behartsuenetako ume-taldea hain zuzen, begiratu zen. Haurtzaindegi honetara joan ziren haurrek programan parte hartu ez zuten beste ume-talde batek baino emaitza hobeak atera zituen eskola-aldi osoan zehar. Ikasketak

burututakoan ere arrakasta handiagoa izan zuten: gizartean hobeto integratu ziren, enplegua lortzeko aukera gehiago izan zituzten, polizia atxilotuak izateko probabilitate gutxiago eta abar. Ikertzaileek adierazi zuten, aurre-eskolako hezkuntza programan inbertituriko 1.000 dolar bakoitzeko, herri altxorrek 4.130 dolar aurreratu zituen hezkuntza eta gizarte arazoei dagozkien gastuetan.

Erresuma Batuan eginiko beste azterlan batzutan ere, haurrentzako zerbitzuetan eginiko inbertsio publikoek gastu publikoaren aurrezki garrantzitsuak dakartzatela erakutsi da. Aurrezkiak, zerbitzu hauei esker lan munduan sartu edo iraun dezaketen amek ordaindutako zergetatik eta zerbitzu hauek sortarazitako enplegu hazkundetik dator, bai eta langabezian dauden gurasoei gizarte segurantzak ordaindu beharreko dirulaguntzaren murrizketatik ere.

Zerbitzuen kostuei eta onurei buruzko arazo hau dela eta, hiru alderdi aipatu nahi ditut. Lehenbizi, haur txikientzako zerbitzuetarako proposatzen dutan ereduak zerbitzuoi buruzko ikusmolde integratuan oinarritzen dela. Ikusmolde honen arabera, zerbitzu hauek, enpleguen bat duten gurasoen beharrianak soilik aintzat hartu gabe, haur eta familia guztientzat izan behar dira, gurasoak lanean direla nahiz langabezian daudela. Nire iritziz, zerbitzu hauek haurrenganako laguntza zerbitzuek betetzen dituzten eginkizun eta beharrianen osagai bat baino ez lukete izan behar, gainontzekoak umeen hezkuntzari eta sozializazioari eta gurasoentzako laguntzari legoakiekenean lirateke. Hortaz, zerbitzuek funtzio askotakoak eta beharrian ezberdin ugari barne hartzen dituztenak diren heinean lortuko dira onurak, lan egin dezaketen amentzako onurak ez ezik, haurrentzakoak, bai berehalakoak eta bai epe luzeak, eta zaintzaile langabetuentzakoak ere estaliz.

Bigarrenik, ez dut ahalbide onuragarri guztiak erabat arakatu dituen ezein azterlanik ezagutzen. Azterlan batzutan haurrentzako hezkuntza-onurak agertzen dira, beste batzutan, berriz, amentzako onurak aztertzen dira batik bat; baina ez dago onura hauek guztiak kostu eta onurei buruzko analisi orokorra azaltzen duen azterlanik.

Azkenik, zaintza, laguntza eta hezkuntza eskaintzen dituzten haur txikientzako zerbitzuak edozein komunitate behar den moduan garatzeko funtsezkoa eta ezinbestekoa den azpiegituraren osagaia direla aitortu beharra dago —erabakiak hartzen dituztenek funtsezkotzat eta mesedegarritzat jotzen dituzten garraioa, telekomunikabideak eta bestelako azpiegiturak bezain garrantzitsuak den osagaia alegia. Testuinguru honetan, Sareak adierazi du ezen, haur txikientzako zerbitzuek garapen orokorrean eta baserrialdeen dibertsifikazioan behar-beharrezkoa eta funtsezkoa den eginkizuna betetzen dutela eta Batasuneko Estatuak Europako Batzordearekin lan egin behar dutela haur txikientzako zerbitzuen azpiegiturazko eginkizuna garatzeko Europar Batasuneko egiturazko fondoen programen erabilerarik eragingarriena ziurtatzeko. Esan nahi dudana zera da, haurrentzako eta gurasoentzako zerbitzuen onura ekonomikoen edozein ebaluazio egiterakoan, azpiegiturazko eginkizun garrantzitsu hau kontutan hartu behar dela.

Bateragarritasunerako ekinbideen aldeko arrazoi ekonomikoen hirugarren alderdia langabeziari aurre egiteko ahalbideei buruzkoa da, Europar Batasunean dagoen arazorik garrantzitsuen eta larriena agian. Batzordeak prestatu berri duen Hazkunderari, Lehiakortasunari eta Enpleguari buruzko Liburu Zurian proposatzen da Batasunaren helburuetako bat mendearen amaierarako 15 milioi lanpostu sortzea izan dadila, eta lanpostu horietako 3 milioi aurre-eskolako eta eskolako haurrentzako zerbitzuak, besteak beste, barne hartzen dituen “gizarte ekonomian” sor litezke. Horrela bada, gizarte eta hezkuntza-zerbitzuak enplegu sortzaile garrantzitsuak izan daitezkeela aitortzen da eta oso interesgarria izango litzateke aitorten hori gauzatzea. Nire kalkuluen arabera, 3 milioiko zenbatekoa txikiegia dateke herrialde askotako zerbitzuak ezer gutxi garatuak direla

eta zenbait herrialdetako langileen artean, eta Espainikoen artean ere, erabiltzaile ugari izan daitezkeela kontutan hartzen badugu. Akats bakarra jarriko nioke, hau da, haurrekin lan egiteko prestakuntza eta laguntza-maila handiak behar direla aitortu beharra dagoela. Beraz, haurren-tzako zerbitzuek kalitate handiagoko enplegu-aukerak eskaintzen dituzte.

Baimen sistema asmotsu eta malguak ere (eta lan arloan familiaren aldeko politikak eta neurriak eta gizonezkoek haurrenganako eginkizunetan gero eta partehartze handiagoa izan dezatela bultzatzekoak ere) lagungarriak gerta daitezke lana era berdintsuagoan banatuz eta langabezia murrizteko. Hau ez da Batzordearen Liburu Zuriak proposatutako estrategian sartzen, baina Holandako Gurasoentzako Baimenen legezko berrikuntzan adierazten da neurri berri hauek famili bizitzaren, hezkuntzaren (baimenei esker prestakuntzarako aukera gehiago eskainiz) eta langabeziaren murrizketaren aldekoak direla. Oraindik ere, baimen sistema hauek eta helburu hau lortzeko neurriak nola garatu behar diren jakiteko lan handia egin behar da, ikerlan sendoa eta zabala eta lortutako datuen azterketa zehatza behar dira. Epe luzera, hala ere, egoera berria gerta daiteke, alegia, pertsona helduak “denborazko kontua” izan lezake, eguneko edo asteko lanaldia murrizteko edo lan bizitzan zehar nahi bezala eta nahi duenean gozatzeko baimenak hartzeko erabili ahal izango duena, famili erantzukizun gehiago dituen langileei denbora gehiago emateko ahalbidearekin.

ONDORIOAK

6.7

Enpleguaren eta famili erantzukizunen arteko bateragarritasunak garrantzi handikoa izan daiteke gizarte sendo, justu eta aurreratu batean. Gizabanakoarengandik hasi eta gizarte osora hedatu arte, zaintzaren eta enpleguaren arteko oreka egokia lortu beharra daukagu. Eginkizun honetan, behin konpromezu sozialak eta politikoak lortutakoan helburu hauek lor daitezkeela erakusten diguten adibideak bultzatzen ari bagara ere, European oraindik bide luzea urratu behar dugula azaldu dut. Aipagarria deritzot, halaber, bateragarritasunaren inguruko alderdi askori buruzko informazio hain desagokia izateari. Haurrenganako laguntza zerbitzuen erabilgarritasunari eta erabilerari buruzko informazioan, esate baterako, edo lantokietako baimen sistemei eta politikei buruzkoan akats handiak aurkitzen ditugu; gurasoak eta beraien enpleguak ikustezinak dira sarritan; haurrenganako laguntza zerbitzuetako langileei buruz ere ezer gutxi dakigu; jokabide ezberdinen kostua eta onurei buruzko azterketa orokorrak falta dira eta abar luze bat. Funtsezkoa da, halaber, jarraipen zerbitzu eragingarriak erdietsi eta ezartzea eta, era berean, politika hobeak garatzeko ikerketarako estrategiak sortzea.

Toki-mailako eta lurralde-mailako agintariak ere eginkizun garrantzitsua bete behar dute. Izan ere, bateragarritasunerako politika eta programen garapen eta ezarpenean arduradun guztiek parte hartu beharra azpimarratu dudan arren, programa koordinatuagoak eta osatuagoak iritsi bitartean, sektore indibidualen ekimenak gauzatzeko tarte zabala dago. Euren ardura peko arloetan sartzen diren zerbitzuak garatzeaz gain, toki- eta lurralde-agintariak ikerketan lagundu eta Italian Emilia-Romagna Lurraldeko Gobernuak gizonezko zaintzaileari buruz garatu duenaren antzeko proiektu berriei ekin diezaiekete. Toki- eta lurralde-erakundeek, bestalde, aginteaz baliatuz, familien aldeko neurriak, adibidez, bultza ditzakete, bide batez neurrien eragina ebaluatuz.

Azkenik, gai honekin loturiko erakunde arduradunak bildu eta eztabaidatzeko foroak antolatuz ere eginkizun garrantzitsua bete dezakete.

Amaitzeko, ohar europar bat egin eta datozen bi urteek bateragarritasunaren dimentsio europarrari begira izango duten garrantziaz ohartarazi nahiko nizueke. Epealdi honen buruan, lau herrialde gehiago bilduko dira guregana. Batuko zaizkigun iparreko kideak, batez ere, bateragarritasunari buruzko esperientzia eta pentsamolde berriak ekarriko dizkigute eta, beste arlo askotan bezalaxe, Batasuna herrialdeen eta lurraldeen arteko elkartrukea eta lankidetzara garatzeko esparru bikain bilakatuko zaigu.

Datorren urtean, halaber, Batasunaren Aukera Berdintasunerako egungo Programa burutu eta laugarren Programa garatuko da eta, gainera, Haurren Zaintzari buruzko Gomendioa ere berrikusi egingo da. Horrela bada, Batasunaren bateragarritasun arloko politika berrikusi eta nondik-nora garatu behar den aztertzeke abagunea izango da

Azkenik, 1996an egingo den Gobernu-arteko Konferentzia abagune aparta gerta daiteke etorkizuneko Europar Batasunean haurrak izango duen tokiaz eztabaidatzeko. Edo, ezin espero al liteke Batasunarengandik proposatuz joango diren neurriek haurrengan izan dezaketene eragina behintzat kontutan har dezala eta edozein ekimenek, kasurik okerreanean haurren ongizatearekiko ondorio neutroa baino ez dezala izan eta, ahal izanez gero, ondorio positiboa izan dezala ziurtatzea? Hau lortzeko, Batasunak aurrez haurrari buruzko politika bat garatu behar du. Haurrak Batasuneko hiritarrak direla eta, Batasunak ekinbideren bat gauzatzen duenean, halabeharrez, haurren bizitzan ere ikutzen dituela onartzea izango litzateke Batasuna zabaltzeko eta haurrak ere bertan sartzeko prozesuaren beharrezko abiapuntua.